Bat edo bat	=alguno
Arraiñ bat edo bat	algún pescado
Bat edo batzuk	algunos
Orduari, erloio	reloj
Orduari bat edo batzuk	algunos relojes
Arraiñen bat	algún pescado
Orduaren batzuk	algunos relojes
Bein do bein	alguna vez
Egunen baten	algún día (en)
Batzuetan	á veces
Beste batzuetan	otras veces

Esku	=mano
Eskuz	á mano
Eskuaz	con la mano
Oñez	á pie
Oñaz	con el pie
Anka	pierna
Oker	torcido
Anka-oker	zambo
Sur-zapal	chato
Begi-oker (betoker)	bizco
Aita-semeak	padre é hijo

Apal aurrean umeren bat (ume bat edo bat) erre itzan atzo
Alguna criatura se quemó ayer antes de cenar

Urrengo goizean gure Aita lango gizón batgana etorri giñian
La mañana pasada vinimos á un hombre como nuestro Padre

Astelenean baño goizeago ta iñor baño obeto leku bat edo garbitu naiz
Más temprano que el lunes y en sitio mejor que nadie ó más limpio estoy

Eztago nondik edan. Badago
No hay donde beber. Sí hay

Andresek erosiriko arraiñen batzuk dira ama-alaba orrenak
Algunos pescados comprados por Andrés son los de estas madre é hija

Arratsaldeko iruta erdietan zezen andiren batzuk etorriko dira ona
A las tres y media de la tarde unos toros grandes han venido acá

Iñoiz baño beranduago joango dira arraiñ egosi onek
Más tarde que nunca irán estos pescados cocidos

Bat edo batena da orduari eder ori
De alguno es ese hermoso reloj

¿Nona edo nortzuna?
¿De quién ó de quiénes?

Atzo baño zarriago egongo dira or ardao gozoa edaten
Más frecuentemente que ayer estarán ahí bebiendo vino dulce

¿Zeiñ ardaoa edaten?
¿Bebiendo qué vino?

Bostak eta launak eztaue jo
No han dado las cuatro y cuarto

FUNDACION SANCHO EL SABIO VITORIA

Leccion 63.

Muki	=moco
¿Zeiñbaitetan?	¿á las cuántas?
Eztakit	no lo sé (t=yo)
Badakit	ya lo sé
Bestetan	otras veces
Labaña	navaja
Bage, baga	sin
(Gabe, gip.°	»)
Chakur, zakur	perro
'bá	si (condicional)
Ezpa'	sino » neg.)

Gose izan	=tener hambre
Egarri izan	tener sed
Bilbur izan	tener miedo
Bildur naiz	tengo miedo
Egarri aiz	tienes sed
'en	(aglut. grad. supremo)
Ederrena	el más hermoso
Ondoen	de lo mejor (mente)
Geienean	generalmente
Chartoen	de lo peor
Bost bosten	á las cinco en punto

Banintz	=si me hubiera, si fuera
Baintz	si te hubieras, si fueras
Balitz	si se hubiera si fuera
Bagintzaz	si n. hubiéramos
Bazintzaz	si os hubierais
Balitzaz	si se hubieran

Ezpanintz	=si no me hubiera ó fuera
Ezpaintz	si no te hubieras »
Espalitz	si no se » »
Ezpagintzaz	si no nos » »
Ezpazintzaz	si no os » »
Ezpalitzaz	si no se » »

Uriko orduari zarrean bost eta erdiak orainche jo dave
Jo ezpadaue egarri izango naiz
Gurasoak ezpadatorz gose izango gara

Iñor baño goseago nintzan atzo
Eztakit non orre Iñigon ekarririko arraincho biak
Egarri izango zirian anka-oker au be gi-oker ori ta zur-zapal a, lau lauretan etorri ezpagintzaz
Ori ikusi bage. Erre izan bage
Archandan erreriko arraincheak jan ostean egarri ta gose izan nintzan

En el reloj viejo del pueblo las cuatro y media ahora mismo han dado
Si no han dado tendré sed
Si no vienen los padres tendremos hambre
A yer tuve más hambre que nadie
No sé dónde asar los dos pescaditos traídos por Ignacio
Tendrían sed este zambo, ese tuerto y aquél chato si no hubieran venido á las cuatro en punto
Sin ver eso.Sin haber asado (quemado)
Después de comer los pescaditos asados en Archanda tuvimos sed y hambre

Lección 64

'ik	=(limitativo ideal)
Gizonik eztago	no hay hombres
» »	no hay hombre alguno
» »	ningún hombre hay
Gizon bat ez bat	ningún hombre
Bina	á dos cada uno
Iruna	á tres cada uno
Bigarrenean	en la segunda (vez)
Bigarrenez	por segunda (vez)
¿Zeiñbaitkarrena?	¿el de cuántos?
»	¿el cuantésimo?
¿Zeiñbaitua?	¿cuánto cada uno?
Ormaza	mandíbula
Begitarra	el espejo

Betazpi	—ojera
Betazal	párpado
Betule	pestaña
Betseiñ	pupila
Bezinte	ceja
Bekar	lagaña
Betaurre	anteojo
Betagiñ	colmillo
Betondo	entrecejo
Begizko	mal de ojo (brujería)
Begirakume	mirada
Neure begikoa	simpático
Begi-chokoa	lagrimal
Begikoa	ocular

Batzuetan gose izaten naiz, iñor baño goseago, beste batzuetan enaiz gose izaten

Algunas veces suelo tener sed, más sed que nadie; otras veces no suelo tener sed

Nire ankaa baño okerragoak dira beso orrenak

Más torcidas son mis piernas que esos brazos

Badakit ze'an lapurtu, baña eztakit non ibilli

Si sé como roba, pero no sé donde anda

Egarri giñian baña ezkiñian gose apalostean

Teníamos sed pero no teníamos hambre después de cenar

Goizago etorri bazintzaz iñor baño urrunago joango nintzan ni

Si hubierais venido más temprano yo iría más lejos que nadie

Adarren bat ebagi baliz emenche egongo zirian nire labañak

Si hubierais cortado algu a rama,aquí mismo estarían mis navajas

Arraiñen bat egostera dator zure adiskideen ama

La madre de vuestros amigos, viene á cocer algún pescado

Andrazko onek baizen polito aroíz bat ez bat eztira ibilten

Tan bien como esas mujeres no suele andar ningun carpintero

Ezin jatzi izan zirian

No pudieron bajar

Etzirian jatzi al izan

No pudieron poder bajar

Leccion 65

'ke	=	(modal condicionado)
Ninzake		me habría ó sería
Intzake		te habrías ó serías
Litzake		se habría ó sería
Gintzakez		nos habríamos ó id.
Zintzakez		os habrías ó id.
Zintzakeze		» » ó id.
Litzatekez		se habrían ó id.
Mardo		robusto
Lodi (gizen)		grueso
Astun		pesado
Bizkor		ágil
Zaldi		caballo

Espan, espain	=	labio
Biotz		corazón
* 'gaz ('kin)		con (para seres)
'az, z		con (id. cosas)
¿Norgaz?		con quién
¿Zezez, zezaz?		con qué
Nigaz		conmigo
Igaz		contigo
Zugaz		con vos ó Vd.
Zurraz		con la nariz
Urez beteta		lleno de agua
Urez beterik		» » »
Beor		yegüa

*En Bizcaya se emplea el *con* sin *de*, ni+gaz; en Gipuzcoa con *de*, ni+re+kin: nigaz con *g* sin *re*, nirekin con *re*, y *k* ó sea *g* reforzada. La influencia del castellano es causa de que hoy se emplean á veces *'gaz* y *'kin* para cosas.

Ori oñez etorriko litzake, baña ni enintzake olan etorriko

Zaldi bizkorrak gu baño arinago joango litzakez

Gu ezkintzakez zaldi astunak baño arinago joango

Ni jausiko banintz, i ezintzake nigaz egongo

Mutil ona sartuko balitz, i ta ori sutara jausiko zintzatekez

Aroizen bategaz joango dira gure adiskideak nik ekarririko (edo ékarritado) giltzak garbitutera

Andra anka okerrik etorriko balitz, adiskideon gelan barrezka egongo gintzakez

Mardoegia zan zaldia baña beste edo zeiñ baño bizkarragoa

Ese habrá venido á pie, pero yo no no vendría de ese modo

Caballos ágiles vendrian más presto que nosotros

Nosotros no vendríamos más ligeros que caballos pesados

Si yo me caería, tú no estarías conmigo

Si hubiera salido de aquí el muchacho tú y ese habríais caída al fuego

Con algún carpintero han venido nuestros amigos á limpiar las llaves traídas por mí

Si viniera alguna zamba en el aposento de estos amigos estaríamos riendo

Era demasiado robusto el caballo aquel, pero más ligero que otro cualquiera

Leccion 66

Bertan, anche = allí mismo

*Errian bertan
Errian atanche } en aquel mismo pueblo

*Errietan euretan
Erri átanche } en aquellos mismos pueblos

Emenche — aquí mismo
*Berton — » »
Orche — ahí mismo
*Berton — » »

*Erriotan eurotan
Erri órretanche } en esos mismos pueblos

Erri ónetanche } en estos id. id:

*Errion berton
Erri orretanche } en ese mismo pueblo

Errion berton
Erri onetanche } en este mismo pueblo

Iruron echean = en casa de estos tres
Iruren echean — en casa de esos tres
Irurotan echean — » de estos ó esos »
Neu (ni+eu) — yo mismo
Eu (i+eu) — tú mismo
Geu (gu+eu) — nosotros mismos
Zeu (zu+eu) — vos mismo
Zuek (zue+eu) — vosotros mismos
Zuri — blanco
Zurichu — blanquecino
Gorri — rojo
Gorrichu — rojizo
Gorri gorria — muy rojo
Guztiz gorria — » » (del todo)
(Chit gorria — » »)

*La *o* indica roximidad en oposición á la *a*, aun cuando al plural haya *e* en sustitución del limitativo plural *ak*. Con *berton* y *bertan* se duplican los limitativos y los relativos sin dejar despojado al nombre.

Nigaitik edo neugaitik egon da — Por mi ó por mí mismo ha estado
Neugaitik etorri dira orrek berbertaraiño — Por mí han venido esos ahí mismísimo

¿Zegaitik joango litzakez aiñ urruna? — ¿Porqué habrían ido tan lejos?
Emenche erosiriko erostunez beteta dago emakume baltz orren dendaa — La tienda de esa mujer negra está llena de sortijas compradas aquí mismo
Bideon berton egon bazintzaz choriren batzuk geutzat izango zirian — Si en este camino hubieramos estado, algunos pájaros hubiesen sido para nosotros

Iruna edo launa jateko, ¿nogaz egon zara zeu? (zu+eu) — Para comer á cada tres ó á cada cuatro ¿con quién ha estado V?
¿Zeiñbait bidar diñoe orrek guk eurakana joateko? — ¿Cuántas veces dicen esos que nosotros vamos á tí?
Gugaitik jausi da irugarrenean — Desde nosotros ha caído por tercera (vez)

Kalza nasai batzuk erosteza joango nintzake — Yo habría ido á comprar algunos pantalones holgados
Oso gorriak dira nire emoniko zapiak — Muy rojos son los pañuelos dados por mí

Lección 67

'la,	que (aglut. de verbo conjug.)
Datorrela	que viene, que venga
Gagozala	que estamos ó estemos
Bakarrik	sólo, único
Bakarrean	á solas
Estulka	tosiendo
Osagille	médico curandero
Osagarri	remedio
Osasasun	salud
Estul	tos
Estul egiñ	toser

Diñot (diot gip.º)	= digo
Diñok (diok)	dices (varón)
Diñon (dion)	dices (hembra)
Diño (dio)	dice
Diñogu (diogu)	decimos
Diñozu (diozu)	dice V. ó vos
Diñozue (diozute)	decís (varios)
Diñoe (diote)	dicen
Loi (adj. mat)	sucio, a (cosa)
Zazkel (l. pers)	sucio, a
Beti	siempre

Erri onetan osasuñik eztagola diñoe	Dicen que este pueblo no es sano
Datorzala oriek euron semeakaz diñogu	Decimos que vengan esos con sus hijos
Gaur baño chartoago ezkara orduan bizi izango	No viviremos entonces peor que hoy
Zure osasunerako ura dala onena edo sendoena diñoe	Dicen que el agua es para su salud lo mejor ó más fuerte
Gatorzala diñok baña gu etorriko bagintzaz, ezinzake or egongo	Dices que vengamos, pero si hubiéramos de venir no estarías ahí
Osasun ona eukiteko gichi ta gichitan jatea da gauzarik onena	Para tener buena salud la mejor cosa es comer poco y pocas veces
¿Zegaitik diñozu ori? ¿Zer?	¿Por qué dice V. eso? ¿Qué?
Eztala egia lapur batzuk gariala eztiriala eukiten orrenbeste zaldi ta bei iñon ostu bage	Que no es verdad que somos unos ladrones, que no se suelen tener tantos caballos y vacas sin robar en algún sitio
¿Atzo baño chartoago zagozala diño osagille orrek?	¿Que está V. peor que ayer dice ese médico?
¿Nigaitik zelango osagarriak erosi dira gaur goizeon?	¿Hoy á la mañana remedios de qué clase se han comprado para mí?
Gose ta egarri ezpagintzaz, irurok beti ta betiko bizi izango ginzakez	Si no tuviéramos hambre y sed, los tres siempre y para siempre viviríamos
Gari ori errotari batzuna dala diñoe	Dicen que es de algún molinero ese trigo

Lección 68

Jaubé,	—dueño
Chilin	campana
Bekoki (kopet)	frente
Urdail	estómago
Odoltu	sangrar
Odolostu	desangrar
Irakin	hervir
Nengoan	(me) estaba
Engoan	(te) estabas
Egoan	(se) estaba
Gengozan	(nos estábamos)
Zengozan	(os) estabais
Egozan	(se) estaban

Banengo	—si (me) estuviera
Baengo	si (te) estuvieras
Balego	si (se) estuviera
Bagengoz	si (nos) estuviéramos
Bazengoz	si (os) estuviérais
Balegoz	si (se) estuvieran
Nengoke	(me) estaría
Engoke	(te) estarías
Legoke	(se) estaría
Gengokez	(nos) estaríamos
Zengokez	(os) estaríais (V.)
Zengokeze	(os) estarías (var.)
Legokez	(se) estarían

Los participios son tres: 1.° El infinitivo concertando con el auxiliar. 2.° *'ta* ó *'ik* con verbo no auxiliar. 3.° *'tako* ó *'iko* concertando con nombre; haciendo *ko* de proverbo.

Nik ildako chori onekan begerik eztagoz
No hay ojos en estos pájaros muertos por mí

Okelaz beterik dago orren urdailla ta beste egun bi baño lenago ilgo da
Su estómago está lleno de carne y antes de otros dos días morirá

Orrenbeste bitz ezpalego gu ta errotaria uretara joango gintzakez
Si no hubiera tanta espuma nosotros y el molinero iríamos al agua

Orrelango chilinik eztago erri bat ez baten
No hay campana de esa calidad en ningún pueblo

En akume orrek zaldi bat edo batzukaz etorri balitzaz, elitzakez oraiñ lo egongo
Si esas mujeres hubieran venido con algunos caballos, no estarían ahora durmiendo

Nire oñ biak zapalduteko egon zirian orduan
Para aplastar mis dos pies estuvieron entonces

Erostun bina edo iruna eurontzazt erosteko diñoe
Dicen para comprarles para ellos á cada dos ó tres sortijas

Nitk salduriko oñetakoak eta garrikoa eztira zureak baizen sendoak eta estuak
Los calzados y faja vendidos por mí no son tan fuertes y estrechos como los tuyos

Leccion 69

Erpuru	=pulgar (dedo)
Achikar	meñique (»)
Azkordin, uspel	sabañón
Solitu	panadizo
Saldar	divieso
Suldar	grano(de la cara)
Solitu, soldu	enconarse
Zauri	herida
Orban	cicatriz
Orain	lunar
Naparreri	viruela
Elgorria, gorriña	sarampión
Disipula	erisipela

Eskarbi	=tiña
Izur	frunce
Izurri	peste
Chimur	arruga
Garritz	berruga
Tropeillu	chinchón
Anditua	el tumor
Ule-zuri	cana
Beira	cristal
Suburu	chimenea
Eun	lienzo (cien)
Aiztu	cuchillo
Gurgullu	podadera

Sutatik uretara joan bagintzaz edozeiñ zaldi baño bizkarragoak izango gintzakez

Si hubiéramos ido del fuego al agua, seríamos más ágiles que cualquier caballo

Esti geiegi jatea charra da, esne gichiegi edatea ezta ona osasunerako izaten

El comer demasiada miel es malo, el beber demasiada poca leche no suele ser bueno para la salud

Igazlenetik agiñ gichi, ordurarte baño gichiago dagoz nire aoan

Desde el año antepasado pocos dientes, menos que entonces, hay en mi boca

Matrailla-agiñik eztago benetan diñot, baña gose banintz emintzake orregaitik ezer jan bage egongo

No hay dientes (y muelas) digo de veras, pero si tuviera hambre, no estaría por eso sin comer nada

Baserritan euretan bagengoz, ezkintzakez gaur baizen mardoak izango

Si estuviéramos en las mismas aldeas, no habríamos de ser tan robustos como hoy

Oñez ibiltea gauza ona ezpalitz, ¿nogaz da zelan echeratuko zintzatekez?

Si el andar á pie no fuese cosa buena, ¿con quién y cómo iríais á casa?

Ezer eztakit; enaiz iñoiz egon; nire belarrietara ezta barririk etorri

No sé nada; nunca he estado; á mis oidos no ha venido noticia alguna

Ta nire emaztea lengo lekuan edo tokian badago, besoak zabalik liburuz beterik eta barrezka egongo da

Y mi mujer si está en el sitio ó lugar de antes, estará con los brazos abiertos, llena de libros y riendo

Leccion 70

'gane	=parte superior ó anverso
Mendiganean	encima del monte
'azpe, 'azpi	parte inferior ó reverso
Mai-azpean	debajo de la mesa (en)
Mai-azpetik	desde debajo la mesa
Barren	extremo bajo
Uribarrenera	al extremo de la villa
Anchina	antiguamente
Baso	selva
Sala	cortijo, sala
Golde	arado
Igitai	hoz
Zati	pedazo
Oe	=cama
Oi	encía
Okela-zati	pedazo de carne
Baso-atzetik	desde detrás de la selva
Al izan	poder, tener potencia
Ezin izan	no poder, no tener potencia
Etorri al izan	poder venir
Ezin etorri izan	no poder venir
Ezin etorri al izan	no poder poder venir
Oetu	paralizarse
Oeratu	encamarse

Ordu onetan da mai-azpean lo egitea ezta ona
A esta hora y debajo la mesa el dormir no es bueno

Orrek osatu al balitzakez, nigaz joango litzatekez datorren urtean
Si pudieran sanar esos, conmigo vendrían el año que viene

Gure urdailla ta bularra, atzo baño chartoago ta makalchoago, dagozala, diñoe orrek
Nuestro estómago y pecho, peor y más débiles que ayer, que están, dicen osos

Mendi bat edo baso bat erreteko bizte su egoten da errotarien ezkaratzean
En la cocina de ese molinero suele haber fuego como para quemar un monte ó una selva

Iñor baño lenago edo arinago baletor, iñor baño obeto bizi al izango litzake
Si viniera antes ó más ligero que nadie, podría vivir mejor que nadie

Nire anai chikienagaz joan giñiau zaldi batzuk erostera
Con mi hermano menor habíamos ido á comprar unos caballos

Oe aurrera osagille biak baletorz, okela zatiren bat jaten egongo nintzake
Si vinieran los dos médicos delante de la cama, estaría comiendo algún pedazo de carne

Gure otseiñ anka-okerra umetatik olan bizi al izan baliz, gaur edozeiñ langoche lodia ta mardos izango litzake
Si hubiera podido vivir así desde la niñez nuestro criado zambo, hoy sería gordo y fuerte como cualquiera

Oe aurrera dator
Viene adelante de la cama

Leccion 71

Aurrera	=adelante
Aurreratu	adelantar
Atzera	atrás
Alzeratu	atrasar
Estegu	boda (dia de miel)
Eskondu	casar (se)
Seiñ (aur)	infante
Etorriarte	hasta venir
Baietz	que sí
Ezetz	que no
Ez baiez ezezetz	ni que si ni que no

Luma	=pluma (de ave)
Askomarra	tejón (cuadrúpedo)
Esku-makilla	basto, palo de mano
Errauts	ceniza
Sutauts	pólvora
Sur-auts	rapé
Kerisgarri	sombrero
(Buru-tellatu	»)
Kapela	»
Ogi-gaztaia	comadreja
Erbiñudea	»

Orduari ori atzeratu dago(edo erloio)	Ese reloj está atrasado
Ama-alaba orrek laugarren kalean salduriko dendachoa ezta eurona izan	La tiendecita vendida por esa madre ó hija de la cuarta calle no ha sido la suya
Beste anka okerrik ezta biokanantz etorri zazpiretatik oraiñarte	Ningún otro zambo ha venido hacia los dos desde las siete y media hasta ahora
Goizeko bost eta erdiak jo-aurretik zabalduten zi ian beti lantegi orretako ateak eta leioak	Desde antes de dar las cinco y media de la mañana siempre solían estar abiertas las puertas y ventanas de ese taller
Atzo baño edertoago dagozala diñoe, baña ori egia balitz ¿nor egongo litzake gukanantz etorri bage?	Dicen que estamos más hermosamente que ayer, pero si eso fuera verdad ¿quién estaría sin venir hacia nosotros?
Baietz diñoe batzuk, beste bat edo batzuk ezetz	Algunos dicen que sí, algunos otros que no
Gu etorriarte estegura ez joateko diño	Dice que no vayamos hasta la boda
Ni orraiño banentor, elitzake iñor aurreratuko	Si yo viniera hasta ahí, no se habría de adelantar nadie
Mai-ganean ezin egon badira, ate-aurrean ipiñiko dira gure arraiñchoák	Si no pueden estar sobre la mesa detrás de la puerta se han de poner nuestros pescaditos
Basora joateko dagozala diñoe	Dice que están para ir á la selva

Leccion 72

'tzat	=por (como si fuera)
Jagi, jaki	levantar
Edegi, zabaldu	abrir
Idiki (iriki)	»
Matz	uva
Baño, baino	sino, que (comp.)
Dauke	lo tienen
Biskortzat	por ágil
Basorik baso	de selva en selva
Erririk erri	de pueblo en pueblo
Kalerik kale	de calle en calle
Egiñ	hacer

Josi, iosi	—coser
Orratz	alfiler
Jostorratz	aguja
Arte	espacio intermedio
Gizon artean	entre hombres
Zaldi artetik	desde entre caballos
Mendi artera	á entre montes
Adiskide artekoa	lo de entre amigos
Jostun, iostun	sastre, costurera
Janziera, trajea	traje

Kale onetan dauke euron dendacho estua ama-alaba orrek

¿Beste jostunik ezta egoten kale bortan?

Chiki begi-oker bat baño, ez

¿Ezer egiten da euron artean?

Onelango arichoetan jostun geiegi ta zer josi gichiegi egon dira beti

Goiz goizean jagi dira gaiso orrek

Orrechegaitik bost eta erdiak jo baño lenago edegiten zirian igaz Katalinen lantegiko leioak

Ni orrache bizi izatera etorriarte, eztira orrek orratzak saldutera joango

Belaunetaraiñoko ureta ibilli giñian Andresen seme orrechek, euron adiskideak eta geu biok

Basorik baso ta mendirik mendi ibilteko nire anka onek baño astunagoak dira zure orrek

Orrelango matzik ezta onenartean jaten

En esta calle tienen su tiendecita estrecha esas madre ó hija

¿No hay otro sastre en esta misma calle?

No, sino un pequeño bizco

¿Qué suele hacer entre ellos?

En pueblecitos como este demasiados sastres y demasiado poco que coser suele haber siempre

Muy de mañana se han levantado esos enfermos

Por eso mismo antes de dar las cinco y media se solían abrir el año pasado las ventanas del taller de Catalina

Hasta (que vaya) venir yo á vivir ahí mismo, no irán esas á vender alfileres

En agua hasta la rodilla, habiamos andado esos mismos hijos de Andrés, sus amigos y nosotros dos

Para andar de selva en selva y de monte en monte esas vuestras piernas son más pesadas que estas mías

Uva como esta no se suele comer entre estos

Leccion 73

Goiz goizean	=muy de mañana
Goizean goiz	á la mañana temprano
Goizean goizean	todas las mañanas
Biar goizearte	hasta mañana por la mañana
Guzurra esan	mentir
Kampo	fuera
Barru, (barren)	dentro
Goira gora	arriba (á)
Goian	arriba (en)
Goitik	desde arriba
Goikoa	lo, la de arriba
Beian, bean	=abajo
Bekoa	la, lo de abajo
Bera	abajo (á)
Betik	desde abajo
'arren (aglut. verbal)	á pesar de, por más que
Ekarriarren	á pesar de traer
Guzur	mentira
Pozik egon	estar contento
Pozik	contento
Esan	decir
Bilin-balaunka	á tumbos
Apaindu	adornarse

Makaltzat dauke, baña oetik jagi al balitz elitzake mutilegaitik atzeratuko

Lo tienen por débil, pero si pudiera levantarse de la cama no se habría de atrasar por ningún muchacho

Mai-azpeko chakur orrek betagiñik eztauke

Estos perros de debajo la mesa no tienen dientes

Zapiak eta gona zarrak baño (geiago) josiko ezpalitzaz estitarako beste elitzake echeratuko

Si no se habrían de coser más que pañuelos y sayas viejas no se traería á casa tanto como para miel

Erritik kampora urtenarren bertan dauke Choninentzak erosiriko oe ederra

A pesar de salir del pueblo á fuera, aquí tienen la hermosa cama comprada para Domingo

Orratz luze luze bat sartu da gaur goizean Anteron garritik eta odoletan egon da asagillea etorriarte

Una alfiler muy larga se ha metido esta mañana Andrés por la cintura y ha estado sangrando hasta venir el médico

Ni ibilli nintzan orducherarte zaldi ganean beronegaz

Yo anduve hasta entonces á caballo con este mismo

Gaizorik gengozala euron esanarren berbetaraiño izan giñian

A pesar de haber dicho ellos que estábamos enfermos, hasta allá mismo fuimos

Or guzurra daila izan arren, egia da nik ekarririko barria

A pesar de decir que es mentira la noticia traida por mí, es verdad

Guzurrik ez esatea bat da; egia esatea beste bat

El no decir mentira, es una (cosa); el decir verdad otra

Leccion 74

Gangar	=cresta, persona sin fuste
Ekandu, oitura	costumbre, hábito
Makur	inclinación, curvatura
Gordo	guardar
Gor	sordo
Ira	helecho, (planta)
Irachua	fuego fatuo, quimera
Galtseko	para perder
Artseko	para tomar

Kentsera	=para quitar
Errez	fácil
Eguzki-argia	luz solar
Il-argia	luz lunar
Chimiste-argia	luz eléctrica
Gas-argia	luz de gas
Arriorio-argia	luz de petróleo
Arrasta-argia	luz de fósforo
Kruzelu-argia	luz de candil
Illun	oscuro
Illuntasuna	la obscuridad (abstracto)

Orratzak erostera ta chilinak saldutera jagi bazintzaz, diru gichi intzake echeratuko
Si te levantases á comprar agujas y vender campanas, poco dinero traerías á casa (caserías)

Eztaukela diño gu
Decimos que no tiene

Kanpotik barrura datorrela diñoe batzuk, beste batzuk barrutik kampora biokaz doala
Unos dicen que vienen de fuera á dentro, otros que van de dentro á fuera con esos dos

Nirea baizen chakur onik ezta olango tokietan ibilten
Perro tan bueno como el mío no suele andar en sitios como estos

Ogei ta bost idi mardo salduarren, beste asko dagoz gure gela azpean
A pesar de haber vendido veinte y cinco robustos bueyes, quedan otros muchos bajo nuestro aposento

Nire aideak ezin aurreratu izan dira oñez da basorik baso
Mis parientes no han podido adelantarse á pie y de selva en selva

Gose dira ta jatera datorz
Tienen hambre y vienen á comer

Egarri balitzaz zerbait edatera joango litzakez
Si tuvieran sed á beber algo vendrían

Istarrak zabalik balebil, elitzake orren gaizozik egongo
Si viniera con las piernas anchas no estaría tan malo

Jaten baño eztaki
No sabe sino comer

Lau baño eztaukaz
No tiene más que cuatro

Iru baño ez
Sólo tres (no sino tres)

Ni baño obea da, ori baño ez
Es mejor que yo, (pero) no que ese

Por desgracia, en la conversación ordinaria se emplean muchas palabras y hasta giros castellanos.

Leccion 75

'nartean	=mientras, er. tanto que
Dabilnartean	mientras anda
Genbilzanartean	mientrasandábamos
Arri	piedra
Arriaga	pedregal (estrecho)
Arrika	á pedradas
Kare	cal
Sagar	manzana
Sagardao (sagardu)	sidra

Jakin	=saber
Jakin-betea	querubin
Jakindun	sabio, erudito
Jakin-molsoa	la borla de doctor
Jakin-eza	ignorante
Jakintasuna	la sabiduria(abst.)
Sagu, saguchu	ratoncillo
Ipertargia	luciérnaga (insecto
(Beira	cristal, vidrio)
Suburu	chimenea (alta)
Usain (usai)	olor

Gauza bat buruz jakinarren, liburuak sarri edegitea gauza ona izaten da

A pesar de saber una cosa de memoria, suele ser cosa buena abrir á menudo los libros

Irurek gaisorik egon da bere, gure senideak urrun bizi izango dira

Aun estando enfermos estos tres, nuestros parientes muy lejos vivían

Zuk erosiriko (edo erositako) sagarrak baño gozoago dauke onek

Estas tienen olor más agradable que las manzanas compradas por V.

Arri-artean, gengozanartean, bilinbalaunk jausi zirian bein gure aurreko aita-semeak

Mientras estábamos entre piedras, á tumbos cayeron una vez nuestros vecinos padre é hijo

Kare bage ezta gaur echerik ez errotarik ezer egiten

Sin cal no se suele hacer hoy ni casa ni molino ni nada

Mutilcho orrek euron choriak ekarteko dagozanartean, sagardaoa joan edatea al izango gara

Mientras estos muchachitos están para traer sus pájaros podremos ir á beber sidra

Ni zaldi-ganean baño ezin joan izango naiz

Yo no podré ir sino montado (á caballo)

Betik gorantz giñoazan-artean, edozeiñbait erostun ostu zirian geure echeatzeko denda baten

Mientras íbamos de abajo hacia arriba, cuantas quiera sortijas se robaron en una tienda de detrás de nuestra casa

Nik eztakit zer-egiñ, ez non ibilli, ez nogaz osagilleagana joan

No sé qué hacer, ni dónde andar, ni con quién ir al médico

Leccion 76

Dakit	=lo sé
Dakik	lo sabes (varón)
Dakin	lo sabes (hembra)
Daki	lo sabe (él ó ella)
Dakigu	lo sabemos
Dakizu	lo sabeis (vos ó V.)
Dakizue	lo sabeis (varios)
Dakie	lo saben
Gaur amabost	hoy en quince
Eztakit	no lo sé

Ezkondu	=casarse
Burdi	carro
Korta (ukullo)	cuadra
Diru	dinero
Lauoñeko	cuadrúpedo
Belarluce	cerdo (orejas largas)
Urde, charri	cerdo, cochino
Oraiñ bost urte	hace cinco años
Oraiñ amar egun	hace diez dias

¿Non dago nire kortako burdiak?
¿Dónde está el carro de mi cuadra?

Eztakigu non dagon
No sabemos dónde está

Orrek eztakie erri onetan burdirik dagon
Esos no saben que haya carros en este pueblo

¿Zeiñ kortatara joan dira orko charri chikikoak?
¿A qué cuadra han ido los cerdos chiquitos de ahí?

Eztakik zeiñetara joan direan
Tú no sabes á cuál han ido

¿Noiz dagoz ezkondutako Paristik atzo etorriko mutilla ta Blasen alaba zarrena?
¿Cuándo están para casarse el muchacho venido ayer de París y la hija mayor de Blas?

Ezkondute-ko dagozan jakin al izateko ona da kampora bein edo bein urtetea
Para poder saber si están para casarse, bueno es salir fuera alguna vez

Garbitzat dauken edo ez eztakit, baña iru anaiok iñor baño zazkelagoak gareala diñoe orrek
No sé si lo tienen ó no por limpio, pero esos dicen que los tres hermanos somos más sucios que nadie

Nor dan jakinarren berton lo egongo naiz
A pesar de saber quién es, dormiré aquí mismo

Zegaitik edo zer egitea etorri direan jakiteko, ezin jatsi izan gara beko charri-kortara
Para saber por qué ó á qué han venino, no hemos podido bajar á la porcilga de abajo

Zoor zarra, zoor charra
Deuda vieja, deuda mala

Oraiñ bost urterarte oñez ibilten zirian nire zoordunak, ordudik ona zaldiganean edo burdi-barruban
Hasta hace cinco años andaban á pie mis deudores, desde entonces acá á caballo ó en coche

Lección 77

'dun	=(posesión ó dominio)
Birudun	adinerado
Arautzadun	huevero
¡Amaika!	¡cuántos! ¡muchos! ¡once! ¡más que dedos en la mano!
Bustiña	arcilla
Katillu	taza
Autsi	quebrar, romper

Arrautz	=huevo
Nekezalea	artesano
Duarik	de balde
Chaplata	emplasto
Atsegiñ	consuelo
Alaz	con ó de dolor
Alazgiñ	comezón; doloroso
Titina	el pulso
Samiñ	amargo
Zoor	deuda

Zegaitik dan eztakigu
No sabemos por qué es

Ori nogaz ezkonduteku dago jakinarrén: ¿Eu nortzukana joango aiz?
A pesar de saber con quién está para casarse ese: ¿Tú á quién irás?

¿Zer aurreratuten da echerik eche ibilliaz?
¿Qué se adelanta con andar de casa en casa?

Orrek eztakie zeiñbait daizan zazpi ta sei
No saben esos cuántos son siete y seis

Ezin jatzi izango naiz koipedun arrautzak jatera
No podré bajar á comer los huevos en manteca

¡Amaika bidar jaten da okela errea, buztiñazko erratilluetan!
¡Cuántas veces se come carne asada, en platos de arcilla!

Ulezko adar bi dagoz emakume orren sur-contran
Dos rizos (ó cuernos) de pelo están junto á la nariz de esa mujer

Noiztik dagozan eztakigu
No sabemos desde cuando están

Gu (edo geu) leio chikian gengozala, jausi zirian aurreko charridunak
Estando nosotros en la ventana pequeña, se cayeron los porqueros de delante

Orratzak erosten zagozanartean, koipe bageko arrautz guztiak, erre dira
Mientras estáis comprando alfileres, todos los huevos (que están) sin manteca, se han asado

Bi pelotari báño eztagoz gure alde; beste guztiak bion kontra egoten dira geienean
Solamente dos pelotaris están á nuestro favor; todos los demás generalmente están en contra de esos dos

Zazpi ta erdietan etorriko daila diñoe
Dicen que vendrán á las siete y media

Jaungoikoak gura badau, biararte
Hasta mañana, si Dios quiere

Lección 78

Koipe	=manteca
Guzti	todo (precisa limitativo)
Guztiz	del todo, muy
Erle guztiak	todas las avejas
Orio, olio	aceite
Alde	región, lado
Aldeko	regional, favorito
Kontra	junto á
Kontra	contra
Alde	en favor
Zarren alde	en favor de los viejos
Gazteen kontra	contra los jóvenes

Koipedu	=mantecoso
Piper	pimiento
'la	(aglut. gerundial)
Datorrela	viniendo (él ahora)
Natorrela	» (yo »)
Mentorrela	» (yo entonces)
Atorrela	» (tú ahora)
Entorrela	» (» entonces)
Gatorzala	» (nos. ahora)
Gengozala	estando (» entonces)
Genbilzala	andando (» »)
Gaizala	siendo ó habiendo (nosotros

Ezkaratz onetako katillurik eta plaierik sendoneak, buztiñazko dira
De arcilla son los platos y tazas más fuertes de esta cocina

Gu gentorzala joan ezpalitzaz, Bilbo aldera jatziko zirian Chominen seme-alabaak
Si no hubieran ido, en viniendo nosotros habían de bajar cerca de Bilbao los hijos de Domingo

Bat esan bage, ezta besterik esaten
Sin decir una (cosa), no se dice otra

Atzo bezte erratillu (edo plater) ausi ezarren, zortzi egun barru ezta jakingo non-jan da zelan-apaldu
A pesar de no romper tanto plato como ayer, dentro de ocho días no se sabrá dónde comer y cómo cenar

Bigarrenez orretara bizi i tateko, enaiz ni zoordunakaz iñora jatziko
Para vivir de ese (modo) por segunda vez, no bajaré con los deudores á ningún sitio

Gizona nor dan jakiteko, maira bakarrik joatera gichi da
Para saber quién es el hombre, ir solo á comer es poco

Zazpi ta bederatzi zeinbait dirian eztakigula diñoe
Dicen que no sabemos cuántas son siete y nueve

Apal aurrean
Apal orduko
Apaldu baño lenago

Antes de cenar

Leccion 79

'ar, 'tar	=aglut. p. patronímicos
Bizkaitar	bizcaíno
Gipuzkoatar	guipuzcoano
Baserritar	aldeano
Aunts	cabra
Katu	gato
Ollo, (oilo)	gallina
Ollar, (oilar)	gallo
Zelai	prado
Miñ, min	dolor

Jotagero	=después de dar ó pegar
Jo orduko	antes de dar ó pegar
Neure alde dago	está á mi favor
Neure aldera	á mi lado
Neure aldetik	desde mi lado
Neure contra dago	está contra mí
Neure kontran	junto á mí
Neure contratik	desde junto á mí

Bularreko miñaz ilten dago Inesen alaba zarrena

La hija mayor de Inés se está muriendo del pecho (mal de pecho)

Ugo balitz edo ce ganetik jagi ezin balitz beren otseiñak elitzakez negarrez egongo

Si muriese ó si no pudiese levantarse de la cama, no estarian sus criados llorando

Gazteten nintzan ni orrelangoa, zortzirak baño laun gichiagoak jota gero jagiten nintzan

En la juventud era yo como ese, me solía levantar después de dar las ocho menos cuarto

¡Amaika badakie Araba orren umeak!

¡Cuánto saben los niños de ese alavés!

Batzuk arraiñ egosia ostuten da jaten, beste batzuk jaubean atzetik jazten dira, norantz doa jakiteko

Mientras unos están robando y comiendo pescado cocido, otros suelen bajar detrás del dueño para saber á dónde va

Buruz da gurasoak baizen ondo dakie onek, gu nortzuk eta nongoak eta non semean garean

De memoria y tan bien como los padres saben estos, quiénes, de dónde é hijos de quiénes somos nosotros.

Agiñetako miñaz ezpanengo, naparrak aztera ta aurrera dabilzanartean, zelaiaiño ollargarrak ta olloakaz aurreratuko nintzake

Si no estuviera con dolor de muelas, mientras los navarros andan atrás y adelante, me adelantaría con el gallo y las gallinas hasta el prado

Katilluren batzuk saldutera joango dira irurak

Los tres irán á vender unos platos de arcilla

Lección 80

'lako	=porque (verbal)
Datorrelako	porque viene
Gambara, goiaenengo	desván
Errementaria	herrero
Lukainka	longaniza
Sabai	techo
Bedar, berar	hierba
(Belar guip.°)	»
Urre	oro
Urregorri	»

Izutu	—espantarse
Izugarri	espantoso
Idar (ilar)	arbeja
Arritu	petrificarse asombrarse
Arrigarri	asombroso
Gora bera	á pesar de (nominal)
'arren	» » (verbal)
Zidar (zillar)	plata
Urre-zuri	plata (oro blanco)
Altza	el aliso (árbol)

¿Zegaitik eztoaz onek urrezko platerak (edo erratilluak) ekartera?

¿Por qué no van estos á traer los platos de oro?

Ni gora-bera joango litzakez, baña orrelango platerik (edo erratillurik) eztagolako, ezin dira

Por mí mas ó menos (ó á pesar mío) ya irían, pero porque no hay semejantes platos, no pueden

Isugarriak izan zirian zelai atako barriak, goizaldeko bost eta laun launetan, Maripan senarra ta euron seme zarra ta alaba ezkondua ur otzetan sartu dira, ta eztira argitara etorri, ilda dagoz

Terribles fueron las noticias de aquel prado: á las cinco y cuarto en punto del amanecer, el marido de Maripepa, su hijo mayor é hija casada se metieron en agua fria, y no han vuelto á la luz; están muertos

¿Urre gorrizkoa izanarren, zetarako da zure orduari barri ori?

¿A pesar de ser de oro, para qué es ese reloj nuevo de V?

Ori gara-bera zeiñ ordu dan ezta iñoiz jakin al izaten

A pesar de ese (ó eso) no se suele poder saber nunca qué hora es.

Gure goiko errementarian seme-alabaak, euron adiskide onek ezetz esanarren aurre, arrantza bina ta lukainka bana (tatna) jatera doaz

A pesar de decir que no estos amigos de los hijos del herrero de arriba van á comer á cada dos huevos y á cada chorizo

Aurretik ondo esatea ta atzetik charto egitea, anchinako adiskideak dira

El decir bien por delante y el hacer mal por detrás, son amigos antiguos.

Lección 81

'n	—que (para relacionar nombres con verbo conjugado)
Datorren urtea	el año que viene
Negu	invierno
Uda	verano
Uda-barri	primavera
Uda-goien	otoño
Uda-azkan	»
Zugatz, arbola	árbol
Abe, age	viga
Abe-bizi	=árbol (viga viva)
Orri (osto)	hoja
Eguzki	sol
Izar	estrella
'pe, be,	debajo de, bajo
Orripean	debajo de la hoja
Ormapekik	desde debajo de la pared
Zulo, zilo	agujero
Lora (lore)	flor

Neguko sagarra baño gozoagorik eztago, baña orretarako sabaitik bera euxitea izaten da onena

No hay manzana más dulce que la de invierno, pero para eso suele ser lo mejor tenerla (colgando) desde el mismo techo

Eche onetan dagozan ormask kare gichiz egiñikoa dira

Las paredes que hay en esta casa son hechas con poca cal

Eguzkia nora zopiak ara (proverbio)

A donde va el sol, van los trapos

Gu gora-bera sabai orretan egiñ dirian zuloak, orche beti egongo dira

A pesar nuestro los agujeros que se han hecho en el techo, ahí mismo siempre estarán

Arekandik ekarri dana baño-andichoagoa da ori

Ese es más grandecito que el que se ha traído desde aquellos

Negarrez egoten dirian mutillak eztakie bizi izatea zer dan

Los muchachos que suelen estar llorando, no saben lo que es vivir

Udako lora usaiaa gozoa ezpalitz enintzake iñoiz zelaietera joango

Si la flor de verano no fuera de olor agradable, no iría nunca al campo

Jaube bageko auntsak edo jauberik eztaukenaz baserritarrokaz dagezan art an, neure artaziakaz orri batzuk ebagitera joango zara

Mientras están entre estos aldeanos las cabras sin dueño ó que no tienen dueño, iréis á cortar algunas hojas con mis tijeras

Beiu (edo berandu) jagiten dalako, eztira orrek beste lau urtetan bizi al izango

Porque se suelen levantar tarde, no podrán vivir esos (en) otros cuatro años

Lección 82

Isil ostuka	=sigilosamente
Isillik ostuka	á hurtadillas
Isillik	callando
Arto	maíz, borona
Artagarau	grano de maíz
Aurrez aur	frente por frente
Bildur	miedo
Bildurrez	de miedo
Bildur izan	tener miedo (haber)

Garau	=grano
Gari garau	grano de trigo
Gañibeta, aitza	cuchillo
Zorrotz	afilado
Ganera	además
Madari (udari)	pera
Busti	mojar
Au, ori	yo (este) tú (ese)
Onek, orrek	nosotros (estos), vosotros (esos)

Biotz gogorregia daukela diñogulako, burutik oñetara buztiñaz loiturik gagoz

Porque decimos que tienen el corazón demasiado duro, estamos manchados de barro de la cabeza á los pies

Giltz onen jaubea nor dan, da atecho orrek zelan edegiten dirian eztakie Chomiben seme-alabaak

Los hijos de Domingo no saben cómo se abren estas puertitas ni quién es el dueño de estas llaves

Emen nagon au

Yo (este) que estoy aquí

Ara joango aiz ori

Tú (ese) que irás allá

Bildur gaizan onek

Nosotros (estos) que tenemos miedo

Or bizi zirian orrek

Vosotros (esos) que vivís ahí

Bildurrarren nagon au, isil ostuka kortapean sartu nintzan

Yo que estoy de miedo, callando me había metido debajo de la cuadra

Datorren neguan ezta choririk ibilliko zelai onetan

En el invierno que viene no andarán pájaros en este prado

¿Badakizu zeigaitik izango dan?

¿Ya sabes por qué será?

Zugatzetan (edo arboletan) orririk egongo eztalako

Porque no habrá hojas en los árboles

Ganera aurtengo uda au, edozeiñ lekutan dauke beroegitzat

Además al verano de este año, en todas partes le tienen por demasiado caluroso

Chorientzat otza baño obea da beroa

Para los pájaros mejor es el calor que el frío

Batzuk eguerdiko amabiak jota gero, gari-garauak jatera joaten dira

Algunos después de dar las doce de mediodía, suelen ir á comer grano de trigo

Lección 83

Bakoitz	=cada
Norbera	uno mismo
Gauonak	Las Navidades
Gabonak	» »
Egun bakoikzean	cada día (en)
Garizuna	la cuaresma
Oial	paño
Bakoitzean	en cada vez
Laster (aurki)	enseguida
Saiñ	=aceite (de pescado)
Ospiñ	vinagre
Chinel	alguacil
Tramaukulua	la máquina
Arin ibilli	andar ligero, correr
Nekez	difícil
Erraz	fácil
Azkar	vigoroso
Zalla	tieso

Beste batzak goizeko bost baño laun gichiagoak jo orduko, argirik egon ezarren, uretan ibilten dira

Otros para las cinco menos cuarto de la mañana, por más que hay luz, suelen andar en las aguas

Ardaozko bitzetan bustiriko arraiña gozo gozoa izango litzake

El pescado mojado en espuma de vino sería muy dulce

Isillik egonarren, eztagoz pozik gaizorik baño

Aun cuando estamos callando, no estamos contentos, sino enfermos

Uda-barrian urrundik etorten dirian errementariak uda-goienean basorantz joaten dira. ¿Zetara?

Los herreros que suelen venir de lejos en la primavera suelen ir hacia las selvas en el otoño. ¿A qué?

Bertoko gañibetak (edo aiztuak) berbertan zorrotztutera

A afilar allí mismo los cuchillos de aquí mismo

Ire goianengoko mandari guztiak baño gozoagoak izan dira nire aorako nik erosiriko lukainkachoak

Los choricitos comprados por mí son para mi boca más dulce que las peras de tu desván

Eguzkitan egozan nire zapiak ostu al izateko, emenche nenbillen artean isil-ostuka joan zirian

Para poder robar mis pañuelos que estaban al sol, mientras yo andaba aquí, fuisteis sigilosamente

Au gora-bera aurrez aur bizi dirian argiñak eztakie zeiñbait dagozan zugatzpean (edo arbolapean)

Por esto más ó menos, los canteros que viven enfrente no saben cuántos están bajo el árbol

Isillik natorren bakoitzean, jausten naiz

Cada vez que vengo callando, me caigo

Leccion 84

Urlia	—fulano
Zandia	zutano
Berendia	mengano
Odei	nube
Meme	delicado, sutil
Dot	lo he
Eztot	no lo he
Laueerleko bat	una peseta
Erreal	un real
puska (piska)	—poquito
Orduari, erloio	reloj
Samur	tierno
Motel	testarudo
Eskuil	manco
Erren	cojo
Truko jokua	el billar
Kontarri	tanto (del juego)
Kiriketan ibilli	jugar al escondite

Bildurrarren ibilten nailako
Porque suelo andar con miedo (afirm.)

Eguenez dator aurten Gauon eguna
En jueves viene este año la Navidad

Laster jausiko diriala diñoe oial orren jaubeak
Los dueños de ese paño dicen que pronto caerán

Baso-artean artoa ta bedarra jaten bizi garianok eztakigu Garizuna noiz izaten dan
Nosotros, los que vivimos entre selvas comiendo borona y hierba, no sabemos cuándo cae la Cuaresma

Oial ori erosteko kamako lau erleko bat emon-arren ezta euron jaubea pozik egongo
Para comprar ese lienzo á pesar de dar una peseta por vara, no estará contento su dueño

Eztakigu burtiñazko katilluan dagon sagardaoa nontzat izango dan
No sabemos para quién será la sidra que hay en la taza de barro (barro arcilloso)

Errotari zarren auntsentzat izango dira nire gañibeta zorrotzaz ebagiriko orriak eta bedarrak
Para las cabras del molinero viejo serán las hojas y hierba cortadas por mi cuchillo afilado

Ezkuz egiñ da dagozala jakinarren, kampotik ekarten dira uri onetan orrelango pelatak
Apesar de saber que están hechas á mano, á este pueblo suelen traer de fuera pelotas como esas

¿Nona da idarrak jaten dagon auntz ori?
¿De quién es la cabra que está comiendo las arbejas?

Umeen bularrerako sagardaoa baño obea da esnea
Para el pecho del niño mejor es la leche que la sidra

Ori etorri-nartean bildur nintzan ni
Mientras ese venía yo tenía mucho miedo

Leccion 85

'nez	—según (de verbo conjugado)
Diñoe	dicen
Diñoenez	según dicen
'kero	luego, después (id.)
'nez-kero	ya que, puesto que
Diñoenez-kero	ya que lo dicen
Diñogunez-kero	puesto que lo decimos
Auts	polvo
Austu	pulverizar

Emen gagozanok erri batekoak garianez-kero, burdi baten izango gara guztiok

Orrek diñoenez gure goian bizi izan dan augurachoa goizaldean il da

Aurtengo garizumarako milla lauerleko (edo peseta) ta geichoago euki-arren, gichi dira nitzat ¿Zegaitik?

Gure echean ao asko ta beso gichi dagazalako; mairako iñon baño geiago; lanerako bezte edozeiñ tokitan baño gichiago

Soloko idar baratzeko madari ta kortan dagozanak jateko, zazpi semealabak dagoz; eurontzat lan egiteko neu bakarrik

Liburuak diñoenez, ilda gero korputza austu-arren betiko bizi izango gara au baño mundu ederrago baten

Martitzenetik sapaturarte begietako miñaz ezin argitaratu izan dira argiñan gurasoak

Beetik gora, goitik bera arin edo laeter ezta iñor joaten

Garibai	=rio de trigo, abundancia de trigo
Burpilla	la rueda (lo rodar carro
Basa, bustiña	el barro, lodo
Baratz (orto)	huerto, jardín
Solo (soro)	finca, heredad
Ikusi	ver
Mundu	mundo
Agura	ar ciano
Atso	anciana

Ya que somos de un pueblo los que estamos aquí, iremos todos en un coche (ó carro)

Según dicen esos, el viejecito que vive encima de nosotros, ha muerto al amanecer

A pesar de tener mil pesetas y algo más para la cuaresma de este año, son pocas para mí. ¿Por qué?

Porque están en nuestra casa muchas bocas y pocos brazos; para la mesa más que en ninguna parte; para el trabajo menos que en otro lugar alguno

Para comer las arbejas de la heredad, las peras del huerto y los que están en la cuadra, hay siete hijos; y para trabajar para ellos, yo sólo

Según dicen los libros, á pesar de pulverizarse el cuerpo después de muerto, viviremos para siempre en un mundo mejor que este

Desde el martes al sábado con el mal de ojos no han podido mostrarse á la luz los padres del cantero

De abajo á arriba, no suele ir nadie tan ligero ó pronto como de arriba á abajo

Leccion 86

Neskatilla	=muchacha	Zeru	=cielo
Neska	»	Lur	tierra
Neskacha	»	Guzurti	mentiroso
Neska-mutillak	los muchachos	Negarti	llorón
Albo	lado, vecindad	Aurrerantzean	adelante (en)
Jaio, iaio	nacer	Azur	hueso
Eldu	llegar	Azal	corteza
Mamin	meollo, miga	Bildurti	miedoso
Zaboatu	columpiar, tambalear	Ondasun	hacienda

Eztakie zeiñ dan gaztetan zatituriko oña
No saben cuál es el pie destrozado en la juventud

Bizargiñtzan diñoe nez aguracho orren aoan eztago betagiñik
Según dicen en la barbería, en la boca de ese viejecito no hay colmillo alguno

Basarik basa edo lokatzari lokatza ibilli-arren, gure chacurran gorputza garbi garbi egongo da
A pesar de andar de barro en barro ó de lozadal en lozadal, el cuerpo de nuestro perro estará muy limpio

Ikustekoak izaten dira Durangotik ekarririko urdeak
Los cerdos traídos de Durango son de ver

Azurra ta azala baño beste gauzarik eztauke onek euron gorputzean
En su cuerpo estos no tienen otra cosa que hueso y pellejo

¿Zeiñbaít bide dago, Iñigo, zerutik lurrera?
Ignacio, ¿cuánto camino hay desde el cielo á la tierra?

Jauna, amabiak baño laun gichiagoetan zerutik jatsiko bazintzaz amabietarako neure ugazaban maira elduko zintzatekez
Señor, si hubierais de bajar del cielo á las doce menos cuarto para las doce habríais de llegar á la mesa de mi amo

¿Zetarako izaten dan burpil bageko burdia?
¿Para qué es el carro sin ruadas?

Bildur dan gizonagaz enintzake gauaz iñora joango
Con hombre que tiene miedo no iría de noche á ningún sitio

Ni jaio orduko bildurrarren bizi izaten zan gure alboko atsoa
Antes de nacer yo solía vivir de miedo la vieja de nuestra vecindad

Illean illean nik ekarri dot
Todos los meses lo he traído

Leccion 87

'k	=(accidente de transición)
Andresek ikusi nau	Andrés me ha visto
Nau	me ha
Au	te ha
Dau	lo ha
Gauz	nos ha
*(Zaitu	os ha)
Zauz	os ha
*(Ditu	los ha)
Dauz	=los ha
Ekarri nau	me ha traído
Ikusi au	te ha visto
Sartuko dau	te meterá
Ikusi gauz	nos ha visto
*(Sartuko zaitu	os meterá)
*(Ekarri ditu	los ha traído)
*(Ikusi zaitu	os ha visto)
*(Ikusi ditu	los ha visto
Ikusi au	te ha visto
Ekarriko gauz	nos traerá

*Las formas guipuzcoanas, entre paréntesis, aun en Bizcaya son las más usuales para la tercera persona (Repásese la lección 26.)

Aurrerantzean zu jaten zagozan-arteau, baratzera joango naiz ni zugatz loracho ta bedarra ikustera

En adelante mientras está V. comiendo iré al huerto á ver los árboles, las florecitas y las hierbas

Gu mundura etorrita-gero beti egoten dira atso orrek pozarren

Desde que hemos venido al mundo siempre suelen estar contentas esas ancianas

Neskatilla onek ebagiriko zugatzetan, ezta adar onik ikusi

En los árboles cortados por estas muchachas no se ha visto ninguna rama buena

Beste aldean saldu dirianak gure aurrekoak baño gorriagoak dira

Los que se han vendido en otra región son más rojos que los fronterizos nuestros

Garizumako lenengo eguna martitzena balitz, emen gagonzanotzat launa arrautza ta lukainka bina edo geianona egongo litzakez aparitzat

Si el primer día de cuaresma fuera martes, para los que estamos aquí á cuatro huevos y á dos chorizos ó más habría para cenar

Eguastenetik domekararte bularreko miñaz ezer jan bage egon nintzan

Desde el miércoles hasta el domingo había estado con dolor de muelas, sin comer nada

Gambaratik urre zagozanez-kero, azal bage dagozan madari zurichook zeutzat izango dira

Ya que está V. cerca del desván, serán para V. esas peritas blancas que están sin corteza

Egunean egunean joaten da

Todos los días suele ir (ó va)

Leccion 88

Indar	=fuerza
Ormaza	mandíbula
'tzar	(aument. para cosas)
'to, 'ko,	(id. id seres)
Echetzar	caserón
Amako	madraza
Makila	palo
Esku-makila	bastón
Azpiratu	dominar, sojuzgar
Jo bear da	me debe pegar

Artu	=tomar, coger, recibir
Eratzi	derribar, desgarrar, (la piel)
Maite izan	amar, tener cariño
Nai izan	querer, tener voluntad
Gura izan	id. id. id.
Nok (nork)	quien (trans)
Bear izan	tener necesidad
Etorri nai dau	quiere venir

Andrés etorri da
Andresek ekarri dau (du, gipuzc.)
Neskatilla bat goitik bera jatsi da

Neskatilla batek ganbaratik kortara eratzi nau
¿Nor sartu da? ¿Nok sartu au?

Bein baño sarriago euki dau nire senarrak beren besoetan
Ori azpiratuteko beste indar eukiarren, maite nau ohakurrak, iñor baño naiteago nau
Biokaz etorri danez-kero, makilla bat artuko dau Chominek apal-orduko
Noraiño eldu zirian atzo neskatillamutil arek ormatza atatik jatsita gero
Iñor bildur banintz, idi ta beiak salduta-gero lurpean sartuko nintzake
Baratzean nagon-artean, edozer gura izaten dau gure Aitak

Solotik ekarririko gañibetatzar loi orrek baño naiago dau ak alboko jostunen orratz chikiena

Andrés ha venido (intrans.)
Andrés lo ha traído (trans.)
Una muchacha ha bajado de arriba á abajo (intransitivo)
Desde el desván á la cuadra me ha bajado una muchacha (tranmitivo)
¿Quién ha entrado? ¿Quién te ha entrado?
Más de una vez le ha tenido mi marido en sus brazos
A pesar de tener tanta fuerza como para someter á ese, me quiere el perro, me quiero más que á nadie
Ya que ha venido con nosotros dos tomará un palo Domingo antes de cenar
Hasta donde habían llegado ayer aquellos muchachos después de bajar del paredón
Si tuviera miedo de álguien, después de vender el buey y las vacas me metería bajo tierra
Mientras estoy en el huerto cualquier cosa suele querer nuestro Padre
Más que esos cuchillotes sucios traídos de la heredad, quiere aquel la alfiler más pequeña de las costureras de la vecindad

Lección 89

Balio izan	=tener precio, valer
Eroan	llevar
Igortzi	frotar
Gaitu	añadir, aumentar
Gichitu	disminuir
'tsu	(aglut. abund.)
Indartsu	forzudo
Baüan	abandonado

Bizartsu	=barbudo
Uletsu	peludo
Orritsu	frondoso
Egur	leña
Zuzen, artez	recto, derecho
Kruzelu	candil
Artzaiñ	pastor
Alper	ocioso

Mutil bizartsuak Archandako mendiganean erosi dauan echetzarrak, eztau asko balio
Arbe.—Valle en la provincia de Huesca, significa *debajo de piedra, de ar, arri,* piedra y *be* debajo. A la pequeña cordillera montada sobre dicho valle llaman *sobre-arbe,* lo cual sea, tal vez, la etimología de Sobrarbe, pues muchos nombres se han traducido al castellano.

Areza.—Rambla en la provincia de Canarias, que tiene su origen en la fuente de *Los Sauces* y entra en el mar por junto al puerto de Albona; significa *arenal,* ó lugar abundante en arena; de *are,* arena y *za,* sílaba abundancial. La posición en que se halla dicha rambla confirma el significado.

Ariz.—Lugar de Nabarra, Lugo y Orense; significa roble, lo mismo que *Aritza,* el roble y *arecha.*

Ariza.—Villa en la provincia de Zaragoza, es aritza.

Armalla.—Aldea en la provincia de Guadalajara, igual á *peldaño de piedra,* de *ar,* piedra, y *malla,* peldaño.

Arza.—Barrio en la provincia de Burgos y Alaba; significa lugar abundante en piedra; de *arr,* piedra y *za* sílaba abundancial.

Arzua.—En Galicia significa lo propio que *Arza.*

Arretea.—Lugar en Pontevedra. *Arriaca,* mansión entre Mérida y Zaragoza, según el itinerario romano, que debe corresponder á Guadalajara; *Arriate,* villa en la provincia de *Málaga; Arrieta,* lugar en la de Burgos y también una punta de la isla Lanzarote en Canarias; todas estas voces vienen de *arri* y significa lugar de piedra ó pedregoso. Así vemos también en Bizcaya la anteiglesia de Arrieta, que tiene ese significado, y existen muchos apellidos de Arrieta.

Colcos.—Colquide, Colquida, Colchis, península asiática, procede de *Colcoa,* y en otra forma *Ugolcoa,* seno de agua ó golfo, y lo confirman sus dos golfos y el *Termánico* que está al lado.

Ezpela.—Sierra en la provincia de Huesca; significa *boj.* Y es de presumir que lleva este nombre porque abundó dicha planta en la mencionada sierra.

Galaroza.—Villa en la provincia de Huelva, significa lo mismo que galarda; en Alaba existe *Galarreta* y en Guipuzcoa *Galarza,* que significan lo mismo.

Garabide.—Lugar en la provincia de Lugo, igual á *camino de helecho,* de *gara, helecho* y *bide, camino.*

Goi.—Hay dos ó tres lugares en la provincia de Coruña que llevan este nombre, porque están en paraje alto. No otra cosa significa la palabra cúskara *goi.*

Goibe.—En la provincia de Coruña, significa *debajo del alto;* de *goi,* alto y *be* debajo.

Goya.—Lugar en la provincia de Lugo y Orense; lo mismo que *goi* con la *a,* nota del apelativo.

Liguria.—Italia, de *iligor,* pueblos ó países altos.

Izarbe.—Lugar en la carretera de Huesca á Cartagena.

Liñaran.—En la provincia de Lugo, igual á *valle de lino*, de *liñoa*, lino y *aran*, valle.

Liñala.—Villa en la provincia de Lérida; significa lugar de lino, de *liñoa*, lino y *ola* desinencia de lugar.

Mandia.—Feligresía de la provincia de Coruña; en bascuence se llama así al paso ó puente que se establece para la entrada al piso superior de la casa y tenemos varios apellidos formados con dicho nombre, como son, *Mandiola*, *Mandiolaza* y otros. *Mando*, también significa mula.

Marauri.—Aldea en la provincia de Burgos; significa población del límite, de *marra*, raya, límite, y *uri*, población.

Martinza.—Aldea en la memorada provincia, igual á Martín viejo.

Manauri.—En la provincia de Lérida; igual á población de minerales; de *mena* mineral y *uri* población. *Mena*, también significa educado.

Meñaza.—Lugar en la provincia de Palencia; significa, lugar abundante en minerales, de *mena* mineral y *za* sílaba abundancial.

Muga.—Río en la provincia de Gerona, partido judicial de Figueras; tiene su origen en la divisoria de Francia al pie del Pirineo, por cuya razón sin disputa se llama así, porque *Muga* es palabra eúskara que significa límite. Hay pueblos del mismo nombre en las provincias de Burgos, de Zamora, de Gerona, etc.

Mugia.—En bascuence suena *muguia*, que significa lo mismo que muga, y hay aldeas de este nombre en Coruña.

Muño.—En la provincia de Oviedo; es palabra bascongada que significa *colina*. Muñoa ó munoa, la colina.

Muñocha.—En la provincia de Avila; puede significar *colinita*, también *colina fria*. *Moño-choa* ó *muño-otza*.

Muñodia.—En la misma provincia. Significa, *paraje de colinas*.

Muñoz.—En Salamanca, *colina fría*.

Nava.—En Avila, Gerona, Huelva. Significa llanura. Hoy se escribe con b.

Oeta.—Monte de Grecia, altura. *Oe-eta* sería lugar de cama.

Otivar.—Lugar en Granada, proviene de *ote*, árgoma, é *ibar*, valle; significa por tanto, *valle de árgomas*. (*Ibar* no es valle, es vega) *Ibarra*, la vega.

Obeta.—Antiguo nombre de la ciudad de Oviedo, de donde latinizado vino *Ovetum*.

Oyarzu.—En la provincia de Logroño, significa *selva*, y tenemos varios apellidos en cuya significación entra esta palabra, como son, entre otros *Oyarbide*, *Oyarzabal*, Oyarzun.

Orbelus.—Entre la Tracia y la Macedonia; *orbeta*, significa altura.

Orzanaga. En León, concejo de Vega Cervera; voz de *oriza* (andi) *aga* (lugar de gran recuerdo), como de *ortz* (andi) *aga*, sitio de gran arco, ó de *ortz-aga*, etc.

Oruña.—En Santander: *Orruntia* en id., *Otañez* (id.), *Otea* en Valladolid, *Oteo* en Burgos, *Oia* en Galicia, *Oriz* en id., etc., etc. y Orduña en Bizcaya.

Urbel.—Pequeño río en la provincia de Burgos. Significa *agua negra*; de *ur*, agua, y *bel* negro; lo mismo que *beltza*; en Bizcaya *baltza*.

Urbiaca. Ciudad de la antigua España en la región de los celtíberos.

Urbicua.—Fué mansión en el itinerario romano, y se cree fuera la actual Checa; significa *de dos aguas*.

Pica-sarri.—Despoblado, en Alicante.

Maya.— *Mayas, Mayalde,* en Nabarra, Gerona, Salamanca y Zamora; son voces topográficas, como escribe el P. Arana y significan, al igual que *Aya* y *Amaya*, lugar alto con meseta de poca extensión. (También mesa).

Osuna.—De *oso unea,* coto redondo.

Chipiona.—De *echepe-ona,* buen abrigo, buen puerto.

Portugalete.—Sitio donde se halla el puerto caudaloso, abundante; de *portu,* puerto, y *ugar, ugal,* copioso, y *eta* expresión de localidad.

—*Sagarra.*—O *Segarra,* en Lérida; significa manzano, y de esta voz *sagar* procede *sagar-dia,* el manzanal; *sagar-doa,* de *sagarra-ardoa,* la sidra ó sea el vino del manzano; *segardo, sagardo-tegia* la sidrería ó lugar donde se vende la sidra. *Sagardoia,* vergel de manzanos; *sagarroia,* el erizo, mamífero que se alimenta con preferencia de la manzana, *Sagasti,* manzanal; *Sagastizabal,* manzanal ancho, espacioso; *Sagastizar,* manzanal viejo; *Sagastia, Sagasta,* manzanal; *Sagarminaga,* paraje poblado de manzanos silvestres, agrios, sin ingerto, etc., etc.

Santoña.—En la provincia de Santander. Fernández Guerra, tratando de la procedencia de la voz Santoña en el libro que lleva ese título, escribe que los que quieran saber cuál era el nombre que llevaba Puerto Victoria ó Santoña «no darán lejos del blanco de la verdad á juicio mío cuantos conjeturen que debió ser la de Sand onia, equivalente en lengua eúskara á pie y desembocadura del Sanda, con harta propiedad, como que la Peña Santonia (que tal se llamaba todavía en 1639), sirve de escabel y de pie al río Asón, apellidado de los Iberos, Sanda ó Sanga, por testimonio de Plinio. Siempre guardó la roca su primitivo nombre de Sandonia ó Santonia.»

Sarria.—En Lugo, Barcelona y Gerona. De la voz *Sarri* procede el valle de Nabarra llamado *Sarries, Sarriguren,* lugar en dicho antiguo reino; *Sarricolea,* barriada en Bizcaya; *Sarricorta,* caserío y apellido; *Sarrikuri* despoblado en Alaba; *Sarrion,* lugar de Teruel, etc. Sarri significa frecuente y presto.

Zubia.—En Granada, que significa el puente, y componente de varios apellidos y pueblos. Así *Zubiaga,* lugar, sitio del puente; *Zubizarreta,* lugar del puente viejo; Zubialdea, junto al puente; *Zubiri, Zubiria, Zubiko, Zubikoechea,* etc. *Zubi* paréce á su vez formado de *zur-bi* ó *zul-bi.*

Las voces acabadas en *tania* como *Accetania, Authetania, Basetania, Edetania, Jaccetania, Laccetania, Letania, Lobetania, Oretania, Voletania, Lusitania,* con que los romanos denominaron distintas y antiguas regiones, son bascongadas y no célticas según Astarloa; porque provienen de *Acheta, Andseta, Baseta, Garapeta, Cerreta, Goseta Edeta, Jacceta, Latzeta, Leeta, Lobeta, Oreta, Bobeta, Luceta,* y no hay duda, dice aquel bascófilo, que la terminación *tania* es basco-latina, como compuesta de *ania,* conocida terminación de los latinos y la *eta, etan* que no puede disputarse á los bascongados.

Sobre este detalle conviene tener presente lo que escribió D. Antonio Delgado, aunque no opina favorablemente respecto á ser el basco el idioma de los iberos. «Los Scito-Trácito ó iberos ocuparon primero que otros los territorios más pingües de toda España, divididos en naciones y tribus, formaron la base en estos territorios de la población que hasta el día viene ocupándola, pero de su primitivo lenguaje *poco nos queda,* como no sean comprobantes de la procedencia en las terminaciones en *tan* de los nombres propios

en regiones ó países que son idénticas á las que llevaban aquellos de donde provenían.

Además de esto no creemos aventurar mucho al decir que en la lengua y dialectos bascos se encuentran en el día palabras y raíces que deben haber procedido de gentes de aquellas primeras invasiones.»

No solamente no aventura nada al decir que en la lengua basca se encuentran palabras y raíces de esa procedencia, sino que se engaña al creer que el bascuence no es la que se habló en toda España, pues bien pudo reflexionar que el dicho de Estrabón, en que se apoya, es de época muy posterior á la en que Iberia habló el eúskaro. En tiempo de Estrabón ya España se hallaba invadida de otrás gentes extrañas á la nación indígena, gentes que usaban sus idiomas. Mas esto no impide que antes de éstas los Iberos emplearan su lenguaje euskaldun.

Sostiene también Astarloa con Larramendi que es bascongada la terminación briga (uriga) de las famosas ciudades Augustobriga, Juliobriga, Flaviobriga, Deobriga, etc., no reputan bascongada (como es natural y obvio) la primera parte de estas cuatro voces que cito: pero Astarloa analiza las palabras Samarobriga, Artobriga, Arabriga, Arco-briga, Celiobriga, juzgándolas bascongadas aun en su parte primera.

Lo mismo aseguran los referidos autores de las voces acabadas en *bria*, terminación que no tiene etimología en la lengua de los Tracios, y sí muy clara y usadísima en la *uria* de los euskaldunas.

El señor Sánchez Calvo escribe al exponer algunos nombres topográficos de Asia con raíces y expresión basca: «Por más que se haya criticado á Humboldt, Astarloa y Larramendi á causa del abuso de las etimologías eúskaras, no es posible dudar de las que acabamos de exponer (las suyas) por la doble coincidencia que se revela adecuación del significado y de la cosa.»

Según Larramendi también son conocidamente bascongados los nombres de la Bética de que habla Plinio, como *Osonola, Lusturia, Luxia, Arianos* (montes), *Murgis, Salduba, Ménoba* (río y pueblo), *Mentesa, Astigui, Alostigui, Ostigi, Sastigi, Arialdunum, Osca, Ipastergi, Arruci, Axastiara, Oset, Osingi, Arsa....* También son bascongadas, según el mismo, algunas voces citadas por Livio y Apiano como *Iscadia, Obola*, en Extremadura; *Laberria* en la España citerior, Athanagia en Cataluña... *Ausana, Urbiesca, Bescelia, Holon*, otro Salduba distinto del de la Bética... *Cardona, Bardona, Saguncia* en la Celtiberia; *Urique, Ostrace* en la Lusitania.

En Carpetania, además de este nombre, *Ilippona, Oretum, Oretani*; en Galicia este mismo nombre y además *Iria-Flavia*; y en Asturias este nombre. A estos vocablos añade Astarloa Abarum, promontorio de la costa de Portugal. Alaba ciudad de la Celtiberia, Albónica, ciudad de los Edetanos, Arandi ó Arandis, ciudad de la Lusitania; Ausa, Berarsium, Biscargi, etc., etc.

De la palabra *uri, uria, iri, iria, ulia, ilia*, ciudad, población, y *eri* ó *erri* tierra; *eria, erria*, existen muchos nombres de poblaciones antiguas.

El tránsito de la *r* en *l* en *iria uria, ilia, ulia* «está reconocido por todos los filólogos, escribe Sánchez Calvo impugnando á M. Bladé, que llegó hasta re-

gar esta conversión natural» Y los romanos sustituyeron muchas veces la *l* en *r*. Así *Iliberris* por *Iriberris*.

De aquí los nombres de *Gracouri, Grac-uri, Gracuris,* ciudad bascona, que es Agreda y significa la ciudad de Graco, por su fundador: *Calagurri, Calagorri, Calagurris,* Calahorra, nombre puramente bascongado, que significa ciudad alta, población situada en altura. La voz *cala* en bascuence significa altura como el *goi* significa otro tanto; y el *uri urri* ó *gorri* son voces bascas. Esta última significa bermejo, rojo, *colorado,* y podía también decirse *Urigorri,* alto rojo, *Illarcuris, Laccuris, Illi-berris, Illumberri, Iriberri, Calabarri, Eliza-berri, Iri-buru, Ulibarri,* etc., son voces bascas.

El señor de Moguel, impugnando á Traggia, aduce como derivados del bascuence los nombres de estos pueblos:

Ilerda, hoy Lérida.

Ilergetas, la capital.

Ileate, entre los Cemosios y Tarifa.

Ilereaones, pueblos de la comarca de Tortosa.

Ilipula, monte, ramo de los Orospedas, que es *Urospeda,* bascuence.

Ilipa, dos ciudades de este nombre, una en la falda de Sierra Morena: también por otro nombre llamado Itálica, doce leguas de Sevilla, y dice Moguel, apoyándose en Estrabón, que hasta aquí subían los barcos menores. Otra es la Sarena «que ahora se dice Zalamea» y aun hay sentencia, según el mismo bascófilo, que la villa de Niebla, en Andalucía se llamó *Ilipa.*

Añade á esto *Ilorci* ó *Ilurci,* de donde procedieron los *Ilorcitani,* hoy Lorca.

Ilurci, la después *Grac-curis.*

Iliberi ó *Iliberri,* dos ciudades de este nombre, una de ellas la en que se celebró el insigne concilio Iliberitano.

Ilurco, hoy Ilara, cerca de Granada.

De la radical *ur,* agua, se encuentran varias poblaciones. En la Basconia francesa recordaré á la hoy Olorón, la antigua *Il-uro, Sibour-e* y el río *Adour. Urberoaga,* lugar de agua caliente; *Urkiola,* lugar de abedules; *Urkijo,* pegado ó cosido de abedules.

Chao enumera además veinticinco ciudades antiguas de la India con dicha radical. Recuerda además la existencia de muchas villas patriarcales que florecieron simultáneamente en la India y en la Iberia española, y que es prodigioso el número de los nombres que aún perseveran conocidamente por euskaros, no obstante la desfiguración que sufrieron por los geógrafos griegos y por el cambio y corrupción que los siglos y las dominaciones extranjeras introdujeron. Otro tanto aplica á la parte arqueológica primitiva y ofrece el siguiente cuadro:

Iberia española	Arghiri
Indo Pandions	Arghiri
Iberia pirinaica	Arramagora
Indo Simirices	Arramagora
Iberia pirenaica	Arretacharra
Indo Chartes	Arretacharra
Iberia pirenaica	Artho-Arta
Indo Paromapises	Artho-Arta
Iberia pirenaica	Sokharangora
Indo Ichtyopages	Sokharangora
Iberia pirenaica	Suhanagora
Indo Iberiges	Suhanagora
Iberia pirenaica	Aganagora
Indo Sestares	Aganagora
Indo Abarades	Aganagora
Iberia pirenaica	Salata
In lo Iberiges	Salata
Iberia pirenaica	Salagaza
Indo Caspizes	Salagaza
Iberia pirenaica	Salanburu
Indo Iberiges	Salanburu
Iberia pirenaica	Zubiri
Indo Drylophilites	Zubiri
Indo Iberiges	Zubura

(En otro capitulo de su luminoso trabajo, el Sr. Labayru, con media docena de palabras escogidas de una obra de Saint Hilaire, hace resaltar la divergencia que se observa con sus correspondientes castellanas y francesas y la gran similitud que tienen con el japonés: á las palabras basco-francesas he añadido las bizcainas).

Castellano	Japonès	Bascuenze		
Solamente	Bakari,	Bakarik, (Bakari	Bakarrik Bakarri)	
Aposento, cuarto,	Heiya	Heiya, (Gela en Bizkaino)		
Señor	Danno	Jauno	Jauna	Iauna
Principal, mayor	Noushi	Noushi	Nagusi	Nagusi
El es	Da	Da	Da	Da
Eso, ese, esa	Kore, ó Hore	Hore	Hori	Ori

Las palabras bascongadas con h son Basco-francesas.

También es curioso (aunque esto no costa en dicha obra) que los indios tagalos llaman *baso-baso* al distrito más selvático de su isla, que les ha servido de refugio en la insurrección actual, y *baso* en Euskara significa selva, y *baso-baso* significa muy selvático, como *zuri-zuria* muy blanco y *chiki-chikia* muy chiquito, etc., etc., suprimiéndose el artículo *a* cuando hay algún otro limitativo que cargue con él ó quiérese dejar indeterminado.

Son bascongados asimismo los nombres antiguos de muchos ríos, como Barbesola, Beti ó Betis, Duratón, Ibaro ó Iberus, Orbea, Sanga, Secien, Urbona, Vaci, etc.; como también algunos apellidos muy esparcidos, tales son: Iñigo, Azcárraga, López, Mendoza, Zuñiga, Velasco, Velázquez, Porcél, Onorio, Gutiérrez, Guevara, Vélez, Vela, Vera, Rebera, Anoya, Arana, Arce, Salazar, Bazán, García, Izturiz, Olozaga, Escosura, Muñoz, Bayón, Nava, Orobio, Oropesa, etc., etc., etc. Y finalmente, el Diccionario de la Lengua Castellana, y otros de otros idiomas, poseen un buen número de voces puramente eúskaras.

Por todos estos detalles, y muchísimos más que se omiten con el fin de no prolongar esta sección y por ser este punto propio de un trabajo concienzudo, aparte, se descubre no sólo la antigüedad del desdeñado idioma euskaldúna, sino su mucha extensión: idioma que privó por muchos años en el Asia, Africa y Europa, y que á pesar de los transcurridos y de las continuas revoluciones y cataclismos de toda suerte como se han sucedido, se perpetúa; y aún se registran por doquier rastros y huellas de su longevo poderío por medio de la antigua geografía.

«El origen eúskaro de la primitiva toponimia ibérica, escribió Sánchez Calvo, está bien probado á pesar de los críticos habidos y por haber. Que haya mucho de celta, de latín, y aun de griego y fenicio, como últimamente ha habido un poco de árabe en la nomenclatura de lugares españoles, no significa nada más sino que estos elementos han sido sobrepuestos por invasiones y conquistas sucesivas.»

Boudard, en su «Ensayo sobre la numismática iberiana», ya consigna, al tratar del idioma de los íberos, que el bascuence se habló en la Bética, en la Lusitania y en toda la península ibérica.

Y, en efecto, el estudio reposado de la Corografía particular de las provincias y geografía universal así como el de la lingüística, señala con poderoso estigma haber sido el lenguaje basco el dominante en toda la Iberia en edades lejanas, aunque lo contradigan Floranes, Bladé, Tovino y otros.

(En la moderna ortografía los bascófilos han suprimido la V, C y Q, reemplazándolas siempre con B, Z y K. También han suprimido la *u* muda de *que qui*; y algunos han cambiado la *ch* por *ts*. Otros han ido mucho más lejos en la reforma ortográfica de nuestro antiquísimo Euskara, pero su estudio nos llevaría demasiado lejos de nuestro propósito).

JUNIO 1897.

H 29576
A
ATU 14601
FUNDACION SANCHO EL SABIO VITORIA

LENENGO IRAKURGAIA

BEIN DA BETIKO

AZKUEKO RESURRECCION MARIA ABADEAK

EGINA

BILBAO

IMPRENTA DE LA CASA DE MISERICORDIA, ITURRIBIDE, 2

1893

T. 10194

ABBADIEKO ANTOINE IAUNARI

Buru-auste nekagarria ta garaitu-ezina izango litzakit' zugan Abbadieko iakituna baino ikusi ezik' nire gogamenak erara ta egoki adierazotea: baina zugan Abbadieko euskalduna ta euskaldunen aitalena dakustanez goro' eztaukat zeri burua ausi' zeri nekatu ta armindu bere ez. Euskaldunak gaiz (gura) biok. Euskaldunak euskaldunagaz iardu ta erausteko' burian argi andirik euki ezarren' biotzeko garra dau naikoa. Biok daugu erri bat maite, erri ederra: zaarra dain aldetik' gurgarria, doaiz betea ta zintsua dainetik' maitagarria. Izkera batek alkarturik gaukaz biok, geure Ama Euskal-errian izkeraa izanaz gancra' laguntasunik ezaz sotil da etsaiz edo areriaz inguraturik estu dagolako.

Euskal-erriak' bizi al izateko' biotz bakar bat dauka, egiazko euskaldun guztien biotz guztiakaz eginiko biotza. ¿Zer balio dau' euskaldunak batuteko' Pirineoetako mendierreskadaak? Zulatu beie (mendean daukelako) Españiarrak eta Frantsezak menditeri latz ori; arri-ikatz-kez kedartu beiez beren erraiak, gaztelaz iosi daioela arrizko

azala. ¿Zer iaritsiko daue albo-erri gaztetsoak gure Ama zaarran gorputza gau ta egun' oinez ta burdiz' burdinaz ta suz zaurituarren? Eztai asko gure Ama samurran bizia il al izateko' beren bizkar-azurra (Pirineoetako menditeria) ta gorputza zulatutea. Euskaldun onak munduan dagozanartean' Euskal-erria eztai berez erioko, eztau ez benetako areriok ez izen utseko adiskidek il al izango.

Euskaldun guztion anaitasuna zelanbait erakustearren' ezarri gura izan daut zure izen entzutetsua ene irakurgaitso onen leku agirienean. Zuk modu askotara' ezin obeto ta sarri erakutsi dauskuzu' Bidasoatik onantzko euskaldunoi' beste alde orretakoak dauskuen mailetasuna; nik' ortikoai emendikook dautsegunan ezaugarritzat' gaurrarte ezin ezer agertu izan daut.

Euskaldunak: nire izen da izatetsoak ezin dauana' Aitalen baten izate ta izen onak egin bei. Batu beiz gure biotzak **bein da betiko.**

Zazpi alaba galant daukaz gure Ama laztanak: Frantziari dautsela iru, Españian mendean lau. Zazpi aizta onek' orain legez erdal-erri bik menderatu bearrean' beste euron beste erdal-errik eurentzakotu ta berc' zazpirok biotzez da egiaz izango dauguz beti bat: Euskal-erria.

Bilbon 1892-garren urtean.

LENENGO IRAKURGAIA

BEIN DA BETIKO

I

TŠAKOLINTEGI BATEN

Ezeukan goiz atan Maripak barriketan iarduteko gogo andirik. Noizik noizera ·amantalaz igorzten euazan beren begi negartsu ta gorrituak.

Otondotšo batzuk ur goritan sartu euazanean'sokondoko gizonai arpegi tšimurduna erakutsiaz' «ke andia dago gizonak (esan eutsen) eta eztaukazu beste lau egunean bere itšasoraterik. Ekaitz gogorren bat dakar aize onek dandarrez.»

—¿Zer, bada, Maripa? erantzun edo iardetsi eutsen Maripari itšas-gizon arek.

—¿Enakutsu begiak edegi ezinik?

—Astoen arrantzaak eta emakumeen negarrak'badakigu, Maripa, zer balio dauen.

—Eztaukat zeuri ezer esateko. Etzaiz zu asko erreko' itšasoak betondo iluna agertuarren; legorrean ondo zagoz; nok iaten emon eukiez gero'eztautsu lo-sorroa asko arindu edo sumatuko'mairako lain nok ekarri egon ezak. Aaaur dabil nire senar taketa bere: umezain (aurzain edo scin-iagole ez esatearren), dindirri-urtika ta kaleak austen. Amabietako tšilinan durundi edo iskanbilak betiko moduan ekarriko dau a maira... ian-edanerako bere'eztirudi baina... on egin daiola.

—Aulan, aaaulan Maripa. Goiz guztian ortše euki augu

I

TŠAKOLINTEGI BATEN

Ezeukan goiž'atan Maripak barriketan iarduteko gogo andirik. Noižik noižera amantalaz igôzten ebazan beren (bere) begi negartsu ta gorriťuak.

Otondotšu batzuk ur goriťan sartu ebazanian'sokondoko gižonai arpegi tšimurduna erakutsidšaz' «ke andidša dago gižonak (esan eutsen) eta eztaukazue beste lau egunian bê itšasoraterik. Ekatš gogorren ba takar aiže onek dandarrez.

—¿Zer, bâ, Maripa? erantzun edo iardetsi eutsen Maripari itšas-gižon arek.

—¿Enakutsue begidšak edegi eziñik?

—Astuen arrantzak eta emakumien negarrak'bâkigu, Maripa, zer balidšo daben.

—Eztaukat zeueri ezer esateko. Etzarie zuek asko erreko'itšasuak betondo iľuna agertuarren; liorrian ondo zagoze; no tšaten emon eukiez kero'eztautsue lo-sorrua asko ariñďu edo sumatuko'mairako laiñ nok ekarri egon ezak. Aaaur dabil nire senar taketa bê: umezaiñ (aurzaiñ edo seiñ-dšagole ez esatiarren), dindirri-urtika ta kaliak austen. Amabidšetako tšiliñen durundi edo iskanbiľak betiko moduan ekarriko dau a maira.... ďsan-edanerako bê eztirudi baiña... on egiñ daidšola.

—Aulan, aaaulan Maripa. Goiž guztidšan ortše euki

tautik ez murtik ez deusik eraso ezinik. Begiak idigi ezin badaunaz bere'ezein aoa itširik euki.

—¡Aai, zu! politok, or zaukadaz'nori adarra io daukazunean pozik!

—¿Egin daun eure arlo edo sail ori?

—Egin da egiten diardut'antšinako lapurren antzera. Sueteko arazo onek naikoa ezpaneuz, da nekeak iasoteko' daukadan baino barru sakonagoa baneuka bere'or zaukadaz deika ta deiez'barrurik sakonenari ganez eragiteko bestean.

—Maripa, guk zeinbait edanago'i ainbait obeto.

—Zuk urdailean ondartza edo aretza andiren bat euki bear dauzu, gizonak: edan-alak edanarren'beti zakustaz edateko amurruz.

—Ekarri eiskun, bada, urrengorako tšakolin indartsuagoa.

—¿Zein edarik zure urdailari atzera eragin? Ezta itšasoko baga edo uin edo olatuen gizako tšakolina banekartsu bere.

—Maripa, Amabietako tšilina dantzut.

—Bai, Erroke:egin betiko arrena.

—Aurra...

—Ondo beren moduko latinakaz dakik, Erroke, arren egiten.

—Zelan irakatsi'alan ikasi.

—Eure bizikoa izango intzan i sakristaukuntsan, Erroke.

—Maripa;nor dain orretarako beren bizikoa ta alagalakoa'laster erakutsiko dausnat. Aur berori. Kaisio Tšanton.

—Kaisio Erroke.

augu tautik ez murtik ez deusik eraso eziñik. Begidšak idigi eziñ badonaz bê'ezein aua itširik euki.

—¡Aai zu! politok, or zaukadaz'nori adarra dšo daukazuenian pozik!

—¿Egin don eure arlo edo saiĩ ori?

—Egiñ da egiĩen diardut'antšiñako lapurren antzera. Sueteko arazo onek naikua ezpanitu, ta nekiak iasoteko' daukadan baiño barru sakonaua baneuka (baneuko) bê' or zaukadaz deika ta deiez'barrurik sakonenari ganez eragiteko bestian.

—Maripa, guk zeinbat (zemat, zemait) edanago'i ainbat obeto.

—Zuek urdaiĩian ondartza edo aretza andiren bat euki biar dozue, gižonak: edanalak edanarren'beti zakustaz edateko amurruz.

—Ekarri ciskun, bâ, urrengorako tšakoliñ indartsuaua.

—¿Zeiñ edarik zuen urdaiĩari atzera eraiñ? Ezta itšasoko baga edo uiñ edo olatuen gižako tšakoliña banekartsu bê.

—Maripa, amabidšetako tšiliña dantzut.

—Bai, Erroke: eiñ betiko arrena.

—Aurra...

—Ondo beren (bere) moduko latiñakaz dakik, Erroke, arren eiten.

—Zelan irakatsi'alan ikasi.

—Eure bižikua ižango iñtžan i sakristaukuntsan, Erroke.

—Maripa: nor dan orretarako bere bižikua ta alagalakua'laster erakutsiko daunat. Aur berori. Kaišio Tšanton.

—Kaišio Erroke.

—Tšanton, erbi-tšakurra izan baintz' ¡ik euki izango euazan surrak!!

—Bai, Erroke, belarriak bere; baina oinik ez.

—Egia esan bear badai' Maripa langoemazte zintsua iasekoa ganoraduna ta maratza daukan gizakume edo gizasemeak 'eztau arrapataka ibili bear. Ezau i aizeak beingoan eroango. ¿Zein sutegitan egin dáue soineko tšartes ori? Ori aldean daukaala'gure tšalupaak tirabira eginez gero'beruna legetšez ondoratuko intzake i. Maripa, Maaripa; aamen au.

—Ori or dagona bádakit nik, Erroke; erantzun euan Maripak.

—¿Ikusi bage?

—Ori urreratu daina iakiteko eztaut nik begirik bear izaten, belarririk bere ez; surrak izaten dautaz naikoa.

—¿Zer bada, Maripa?

—Alperraz berarizko usaina euki daroe: alper-sundaa. Orrelango Maritšo bat senartzat artu baino obe neuan monkategi baten sartu banintz: bai obe neuan. Eztaiala laungoikoak gura izan: baina gure Elizako Done Kosetšo ederra ostuko baleuskue'neure senarra dai agindu ta egina langotšea'beronen seme ta ene seme eder au besoetan daukala'altara-ganean egoteko.

—¿Baina, Maripa, senarra bizi daila alargundu nai euke?

—Bai, Erroke; pozarren. Ori an baneuka'zerua zeruan da zerua lurrean eukiko neukez. Emaztea bage elitzake au zeruan egon al izango, neu bear izango neuduke. Lurrean barriz'kalerik kale edo itšasoak austen dabilenartean euki daroat nik emengo zeru-apurra. Etšean sar-

—Tšanton, erbi-tšakurra ižan baiñtž ¡¡ik euki ižango euazan surrak!!

—Bai, Erroke, belarridša pê; baiña oiñik ez.

—Egidša esan biar bada 'Maripa langO (lako) emazte zintsua dšasekua ganoraduna ta maratza daukan gižakume edo gižasemiak 'eztau arrapataka ibiĩli biar. Ezau i aižiak beiñguan eruango. ¿Zeiñ sutegiĩan eiñ ďâue soiñeko tšartes ori? Ori aldian daukaala 'gure tšalupiak tirabira eiñez kero 'beruna letše ondoratuko intzake i. Maripa, Maaripa: aamen au.

—Ori or dauana bâki nik, Erroke; erantzun eutsan Maripak.

—¿Ikusi bage (baga)?

—Ori urreratu dana dšakiteko ezto nik begiri piar ižaten, belarriri pêz; surrak ižaten doďaz naikua.

—¿Zer ba Maripa?

—Alperrak berarizko usaiña euki dârue: alper-sundia. Orrelako Maritšu bat senartzat artu baiño oba (obe) neban monkategi baten sartu banintz: bai oba neban. Eztaidša-la Jaungoikuak gura ižan; baiña gure Eližako San Kosetšu ederra ostuko baleuskue 'neure senarra da agindu ta eiña lakošia 'beronen seme ta ene seme eder au besuetan daukala 'altara-ganian egoteko.

—¿Baiña, Maripa, senarra biži dala alargundu nai euke?

—Bai, Erroke; pozarren. Ori an baneuko (baneuka)' zerua zeruan da zerua lurrian eukiko neukez. Emaztia bage (baga) elitzake au zeruan egon al ižango, neu biar ižango nenduke. Lurrian barriž kalerik kale edo itšasuak austen dabilenartian euki daroiat (daruat) nik emeko

tuaz batera'agur nire barruko bakea: suetera badator' galerazo baino besterik eztaki egiten; suetera etorri ezik' or guztion artean tšutšuputšu barriketan iarduten dau. ¡Neure erraietako semetšoa berorren eriko zirimara bat izan ezpalekit! Erdu ona, amagana erdu'ene semetšo kutuna, baba-lora ederra; erdu apa apa ¡¡e!! geldi geldi, ezakit iausi'semetšo laztan ori. Nor dauk maite, neure neure orrek? ¿Nor?—Ma, Ta—¿Ama, Aita? ¿Zeinbait?—Mmmar. —¿Amar baino ez neure seme Don Diego, usakumetšo zurien orrek, beste guztiak ioan da bere'etšean egon bear izango dauan orrek? Neure Lorentzotšo, ma'maitea, ma Amari... Ma'eder orrek, ma. Nor dai beso-artean aukan au, nor? ¿Nor nauk ni, ni?—Mmma—Eta an'upa-kontran dagon tšapel zaardun gizona. ¿Nor daugu?»

Ama-semeak'uso-antzera urrumadaka iarduenartean' Tšanton upa-kontran egoan'mai-inguruko gizonai zer edo zer esateko gertu ta ernai.

Ezeutsen Tšantoni barritsu-ezizena alperrik ezarri. *Lagun eletari' bideko zamari*, dino Lapurtarren esakune batek. Bizkaian'*kontu-kontulari' bideko zamari* esan daroagu; ta egi utsa dai. Kontulariak'edo zeatzago esatearren'kontalariak, ibiltaldiko lagunen zamaak eroan ezarren, beren ipuin albista asmo ta barregarritasunakaz [1] asko arindu edo euren astuntasuna errime aztu eragiten dautse. Tšantonek'esakune au beti gomuta izan balu

[1] Lekeition, Ondarroan, Markinan da inguruetan' *con los=akin* esaten daue, *con el* hombre=*gizonagaz*. *Kin* au eztai aurrerantzean aitatuko.

(emengo) zeru-apurra. Etšian sartuaz batera'agur nire barruko bakia: suetera badator'galerazo baino besterik eztaki eiten; suetera etorri ezik'or guztidšon artian tšutšuputšu barriketan iarduten dau. ¡Neure erraidšetako semetšua berorren eriko zirimara bat izan ezpalekit! Erdu ona, amagana erdu'ene semetšu kutuna, baba-lora ederra; erdu apa apa ¡¡e!! geldi geldi, ezakit dšausi semetšu laztan ori. ¿Nor dok maite, neure neure orrek? ¿Nor?—Ma, Ta—¿Ama, Aita? ¿Zemat (zeinbat....)?—Mmmar.—¿Amar baiñ'ez neure seme Don Diego, usakumetšu zuridšen orrek, beste guztidšak dšuan da be'etšian egon biar izango dauan orrek? Neure Lorentzotšo, ma maitia, ma Amari... Ma'eder orrek, ma. ¿Nor da besoartian aukan au, nor? ¿Nor nok ni, ni?—Mmma.—Eta an'upa-kontran dagon tšapel zaardun gizona ¿nor dogu?»

Ama-semiak'uso-antzera urrumadaka iarduenartian' Tšanton upa-kontran euan'mai inguruko gizonai zer edo zer esateko gertu ta ernai.

Ezeutsen Tšantoni (Tšantoneri) barritsu-ezizena alperrik ezarri. *Lagun eletari'bideko zamari*, diño Lapurtarren esakune batek. Bizkaidšan'*kontu kontulari'bideko zamari* esan daroiagu (daruagu); ta egi utsa da. Kontularidšak'edo zietzago esatiarren'kontalaridšak, ibiltaldiko lagunen zamak eruan ezarren, bere (beren) ipuin (upin) albista asmo ta barregarritasun*akin* [1] asko ariñdu edo euren astuntasuna errime aztu eraiten dautse. Tšantonek esakune au beti gomuta izan baleu bere'

[1] Lekeition, Ondarroan, Markinan da inguruetan'*con los—akin* esaten dabe, *con el* hombre=gizon*agaz*. *Kin* au ezta aurrerantzian aitatuko.

bere'barriketan iarduteko eukan baino gutar geiago ezeuan euki izango.

Lenengo aldiz tšakolintegi atara ioanak'Tšanton da Maripa alkarren ondoan ikusiez gero'tšakur bildurti bat katu erpe-zorrotzagaz eskondurik egoala esango euan; baina auzoko guztiak ondo ekien'alkarren antzik euki ezarren'alkar maite maite euela biak. Tšanton burugina itzan, Maripa'burutsua; Tšanton'barritsu ta erausle utsa, Maripak'isila izan ezarren'minari baino eskuai gogo obeaz eragiten eutsen; ak beren egimen edo egitade guztietan zirimaratšo bat irudian; onek beronenetan'emakume ganoraduna ta oartua itzana agiri euan; bildurkor bildurkorra itzan Tšanton, Maripak Iaunari baino besteri ezeutsan bildurrik erakusten; senar gonaduna itzan batu, bestea'ia kaltzadun emaztea; zorgin lamia ta pamerialak zer-esan asko emoten eutsen Tšantoni, Maripari ostera baldin beren itzak siniztu bear badauguz'orretariko umekeriak ezeutsen ardura ta aizola andirik emoten. Bata besteantzat eginak ezirudien: beroa ta otza'eguzkia ta euria'udaa ta negua lurrerako daizanak'itzazan etše baterako senar-emazte arek. Tšanton baino senar egokiagorik topa-orduko'edo neskazartu edo bigarrenean iato bear izango euan Maripak; eta oni'arpegiz arpegi edo bekoz beko ak *Mari-droga* esanarren'bakarrean *Maripatšo geurea* esaten eutsan beren biotzak.

Eztaiogun baina Tšantoni beren itzik atzeratu:

—Eztagola zorginik esaten dauo gero.

—Tšanton, erantzun eutsan batek, bazkaldu eik orain

barriketan iarduteko eukan baiño gutar geidšago ezeban euki iżango.

Lenengo aldiż tšakolintegi atara dšoianak (dšuanak)' Tšanton da Maripa alkarren onduan ikusiez kero'tšakur biĺďurti bat katu erpe-zorrotzagaz eskondurik euala esango eban; baiña auzoko guztidšak ondo ekidšen'alkarren antzik euki ezarren'alkar maiťe maiťe ebela bidšak. Tšanton burugiña zan, Maripa'burutsua; Tšanton'barritsu ta erausle utsa; Maripak'išiĺa iżan ezarren'miñari baiño eskuai gogo obiaz eraiťen eutsen; ak bere egimen edo egiťade guztidšetan zirimaratšu bat irudidšan; onek beronenetan'emakume ganoraduna ta oartua zana agiri eban; biĺďurkor biĺďurkorra zan Tšanton, Maripak Dšaunari baiño besteri ezeutsan biĺďurrik erakusten; senar gonaduna zan bata, bestia'idša kaltzadun emaztia; zorgiñ lamia ta pameridšalak zer-esan asko emoten eutsen Tšantoni (Tšantoneri), Maripari ostera'baldiñ bere berbak siniztu biar badoguz'orretariko umekeridšak ezeutsen ardura ta aiżola andirik emoten. Bata bestientzat eiñak ezirudidšen: berua ta otza'eguzkidša ta curidša' udia ta negua lurrerako dirianak'zirian etše baterako senar-emazte arek. Tšanton baiño senar egokidšagorik topa-orduko'edo neskazartu edo bigarrenian dšaidšo biar iżango eban Maripak; eta oni'arpegiż arpegi edo bekoz beko ak (arek) *Mari-droga* esanarren'bakarrian *Maripatšu geuria* esaten eutsan bere (beren) bidšotzak.

Eztaidšogun baiña Tšantoni (Tšantoneri) bere berbarik atzeratu:

—Eztagola zorgiñik esaten dabe gero.

—Tšanton, erantzun eutsan batek, bazkalduik on (oraiñ)

gogo onaz; arratsaldean azalduko dauskuk non dagozan ire zorginok. Agur, Maripa, berandu daugu ta kontua iluntsean edo...

—Bai zoaz ondo, esan euan Maripak, ez orren ardura izan.»

Bezeroak urtendakoan' «mutila ai i Tšanton, esan eutsan emazteak; amar da erdietan urten da'besterik ezarren'umeari salda-tantatšo bi emoteko'orainarte ager-tu ez.

—Autše dago gurean: arin natorrenean'umeak eguzki geiago arto bear leukela, berandutšoago elduez gero' salda-tan...ta...tšoak. Urrengoan ioan ez da kitu.

—¿Nok esaten dausk ioateko?

—Gagozan isilik.

—¿Norgaz batu ai eu?

—Mandazainagaz da....

—Banaiekian. ¿Orrelangoakaz gauza ona? Bat edo bati buru-auste andiak emongo dautsaz orrek'koko orrek oraindino. ¡Ai, aingeru batek beren errira baleroa!

—Itzat, Maripa, eu bakarrik ai ona, eu bakarrik lan-gilea, eu bakarrik biotz-beraa; eta ori uste izatea.... neuk badakit.

—Itzat, ostera, guztiak dauzak ezin obeak, guztiak zintsuak, guztiok biotz-beraak; eta au uste izatea zer dain edonok daki. Ezai beste bein orregaz batu, buru-arin ori. ¿Ezetedago Lekeition Tšantonentzako lagun erazkorik edo adiuturik? Zori onean aurkitu daizala ire Aita ta enea ¡¡arek itzoazan gizonak, arek!!

—¿Eta mandazaina ta erbestekoa daila' ta tšakur

gogo onagaz; arratsaldian azalduko dauskuk (deuskuk) non dagozan ire zorgiñok. Agur, Maripa, berandu dogu ta kontua iluntsian edo....

—Bai zoiaz (zuaz) ondo, esan eban Maripak, ez orren ardura izan.»

Bezeruak urtendakuan' «mutila aiž i Tšanton, esan eutsan emaztiak; amar d'erdidšetan urten da'besterik ezarren'umiari salda-tantatšu bi emoteko'onarte (orain-arte) agertu ez.

Auše dago gurian: ariñ natorrenian'umiak eguzki geidšago artu biar leukiela, berandutšuago elduez kero' salda-tan...ta...tšuak. Urrenguan dšuan ez da kitu.

—¿Nok esaten dausk dšuateko?

—Gagozan išilik.

—¿Nogaz batu aiž eu?

—Mandazaiñagaz da....

—Banaidšekidšan.· ¿Orrelakuakaz gauza ona? Bat edo bati buru-auste andidšak emongo dautsaz orrek'koko orrek ondiño. ¡Ai, aingeru batek bere errira baleroia!

—Itzat, Maripa, eu bakarrik aiž ona, eu bakarrik langilia, eu bakarrik biotz-beria; eta ori uste izatia.... neu pakit.

—Itzat, ostera, guztidšak dozak eziñ obiak, guztidšak biotz-berak; eta au uste izatia zer dan edono taki. Ezai (ezadi) beste beiñ orregaz batu, buru-ariñ ori. ¿Ezetedago Lekiton Tšantonentzako lagun erazkorik edo adiuturik? Zoridšonian aurkitu daižala ire Aita ta niria (enia) ¡¡arek itzuazan gižonak, arek!!

—¿Eta mandazaiña ta erbestekua dala' ta tšakur

amurratuagandik legez alde egin, igesi ioan, lepoa erakutsi, begiratu bere ez egin gura?

—¡Ai Tšanton, Tšanton barritsu! I ta ni aren antzekoak izan-orduko ¡¡amaika amaika ta erdiko agertuko dakiguz uri onetan!!

—Onez gero salda ona eukiko daugu ¿e?

—¿Guk? Perrandes mandazainak uste neuan. Lenengo erdiratu eik tšisilua, ta laburtšoa dai baina aur dagon samauaz edo mai-zapiaz estaldu eik; zatitu gero arto bero ori, lekuratu aulkiak eta ez lo egon. Tira, tira; igitu gorputz ori.

—¿Geiago?

—Arrena.

—«Guztion begiak Zeuri begira dagoz, Iauna, eta zeuk adiunez danontzako iakia emoten dauzu; Zure eskua edegiaz'bizidun guztiok oneginez aseten gauzuz...»

Arren labur onen urren'sei *Aita gurea* ta *Agur Maria* gitšienez esan eroazan Tšantonek, atzenez *Salve* bat.

Beti langotše bazkaria ta sekulako gogoa euki euezan egun atan bere'Tšantonek eta Maripak: katilukada bi salda aurretik, esteria oneko aza-lapikoa'urdai ta okela gazituaz gozatua; arto-erregutadaak ugari edo iori, unean uncan tšakolina, sagar eder bi atzetik, umeantzat euki eroen salda garbia nora eztaila.

Tšantonek' Maritšokeriak ez aztutearren'tšakolin-tinditšo bat eroan euan umean ezpanetara. Maripak'Tšanton atan ikusi euaneko' «Uuut, esan eutsan, ¿umea bere eu langoʻzurrut-zalea izatea nai aldauk?»

amurratuagandik lez alde eiñ. igesi dšuan, lepua erakutsi, begiratu be ez eiñ gura?

—Ai Tšanton, Tšanton barritsu!! I ta ni aren antzekuak iżan-orduko ¡jamaika amaika t'erdiko agertuko dšakuz uri onetan!!

—Onez kero salda ona eukiko dogu ¿e?

—¿Guk? Perrandes mandazaiñak uste neban. Lenengo erdiratuik tšišilua, ta laburtšua da baiña aur dagon samauagaz edo mai-zapidšagaz estalduik; zatitu gero arto bero ori, lekuratu aulkidšak (aurkidšak) eta ez lo egon. Tira, tira; igitu gorputz ori.

—¿Geidšago?

—Erregua.

—«Guztidšon begidšak Zeuri begira dagoz, Dšauna, eta zeuk adiunez danontzako dšakidša emoten dozu; Zure eskua edegidšagaz 'bizidun guztidšok onegiñez aseten gozuz (gaituzu).»

Erregu labur onen urren (urrengo)'sei *Aita guria* ta *Ave Maridša* gitšienez esan eroiazan (eruazan) Tšantonek, atzenez *Salve* bat.

Beti lakoše (langoše) bazkaridša ta sekulako gogua euki ebezan egun atan be'Tšantonek eta Maripak: katilukada bi salda aurretik, esteridša oneko aza-lapikua' urdai ta okela gazituaz gozatua; arto-erregutadak ugari edo dšori, unian unian tšakoliña, sagar eder bi atzetik, umientzat euki eroien salda garbidša nora eztala.

Tšantonek' Maritšukeridšak ez aztutiarren 'tšakolintinditšu bat' eruan eban umien ezpanetara; Maripak' Tšanton atan ikusi ebaneko' «Uuut, esan eutsan, ¿umia be eu lako (lango) zurrut-zalia iżatia nai aldok?»

Tšanton barriz, emaztean errespeari iaramonik egin bage ta atsakabe andiren batek io bear izan baleu legez, katilua mai-ganean laga'umeari eskutik oratu ta zirkinik egiten ezeuala'katilura begira gelditu itzan luzaro; umeari'arnasa artuteko bere bildurrez'Aitari begira egoanartean'aoa zabaldu ta begiak bustiten asi ekiozan; etšeko andra maratzak ezekian zer-esan'senarra ta semea eskuz eginak langoak ikustean; eta katuak zer erabilen inor konturatu-orduko' «Maripa, esan euan Tšantonek'esku zabalaz belaun-buruko tšapel zaarra astinduaz, Maripa; gure Lorentzo'izen andiko gizona izango daugula uste daut.

—¿Eta au esateko orrenbeztc parizta? ¿Zeinek etedauka gatz geiago: bazkaritako aza buru-bageak, ala nire senar buru-arin onek? ¡A Tšanton, Tšanton barritsu! Ez asko tšarrago umean tšintširrina paparretik dingilizka baeuka. Au gizondu-baino lenago' geu umetako gauzak, geu; eta olan bere' ¡gizon egin da banekus!

Seaskaan edo kumaan ipini eik geure laztan ori, ta bestetan baino obeto erabili gero, neuk katilu erratilu ta tresna-enparauak garbituten diardudanartean'lo eragingo dautsat-eta.»

Esan da egin: Tšantonek umea seaskan ipini euancko' beren emazteak eztarri-ots zoli zoliaz bertso edo neurtitz onetšek entzun eragin eutsezan auzokoai:

I

Basa-tšoritšo mustur-luzeak
Ez igan zerura bila,
Aingerutšorik bear ezkero
Orra or nire mutila.

Tšanton barriž, emaztien errespiari dšaramonik ein bage (baga) ta atsakabe andiren batek dšo biar baleu lêz, katilua mai-ganian laga'umiari eskutik oratu ta zirkiñik eiten ezebala'katilura begira geldiču zan luzaro; umiari'arnasa artzeko be bildurrez'Aitari begira euanartian'aua (agoa) zabaldu ta begidšak buztiten asi dšakozan (dšakazan); etšeko andra maratzak ezekidšan zeresan'senarra ta semia eskuz eiñak lakuak (languak) ikustian; eta katuak zer erabilen iñor konturatu-orduko' «Maripa, esan eban Tšantonek'esku zabalagaz belaunburuko tšapel zaarra astinduagaz, Maripa: gure Lorentzo' ižen andiko gižoua ižango dogula uste dot».

—¿Eta au esateko orrenbezte parižta? ¿Zeñek etedauko (dauka) gatz geidšago: bazkariťako aza buru-bagiak, ala nire senar buru-ariñ onek? ¡A Tšanton, Tšanton barritsu! Ez asko tšarrago umien tšintširriña paparretik dingiliža baeuko (baenka). Au gižondu baiño lenago' geu umetuko gozak (gaituk, gaituzak), geu; eta' olan be' ¡gižon ciñ da banekus! Siaskan edo kuman ipiñi egik geure laztan ori, ta bestetan baño obeto erabiĺi gero, neuk katilu erratilu ta tresna-enparauak garbiťuten diardunartian'lo eraiñgo dautsat-eta».

Esan d'eiñ: Tšantonek umia siaskan ipiñi ebaneko' bere emaztiak eztarri-ots zoli zolidšaz bertso edo neurtitz onetšek entzun eraiñ eutsezan auzokuai:

I

Basa-tšoritšu mustur-luziak
Ez igon (igan, igo) zerura biĺa
Aingerutšurik biar ezkero
Orra or nire mutiĺa.

2

Bere musua edurra dai ta
Sua biotza t'ezpanak
Berton urturik bizi izango daiz
Nire bularra ta sanak.

3

¡Ai! Nok leukezan urrezko orratza
Urre-miesa ta aria,
Urrez asi eta amaituteko
Ume onentzat iantzia.

4

Larrosatšoak bost orri daukaz
Kabelinaak amabi,
Gure umea gura daienak
Eskatu beren amari.

5

Neure leioko inzirrituak
Ilun-abarran begiak,
Ene umea lo datzanarte
Lo egin bei eguzkiak.

6

Argi goiztarra betor gurera
Betorz izartšo gautarrak,
Ezpeiz lotsatu or ikusiaz
Buruak ilun da zaarrak.

7

Begi bik ikuskizun bat dauke,
Belarri biak sentzun bat,